

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	1

GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA FUNDAZIOKO KUDEAKETA SISTEMA INTEGRATUAREN BERRIKUSKETA 2024ko IRAILA – 2025ko UZTAILA

EGILEAK		KONTSULTA	
Luis Alberto Aramburu	Jose Manuel Hernández	Iñaki Mauleon	Miren Iartza
			
Kalitate Arduraduna	Segurtasun eta ingurumen arduraduna	Prebentzio-Delegatua	Prebentzio-Delegatua
		Segurtasun- eta Ingurumen-komitea	

ONARPENA	
Jorge Mancisidor	Carlos Ormazabal
	
Goierri Eskolako Zuzendaria	Goierriko Herrien Ekintza Fundazioko Gerentea

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	2

2024ko Irailaren 30a

0. Aurkibidea

0.	Aurkibidea	2
1.	Zuzendaritzaren aurreko berrikusketen segimenduko ekintzak.	6
2.	Kanpo eta barneko gaitako aldaketak, kudeaketa-sistema integratuari eragin diezaieketenak; hauen barnean honakoak kontuan hartuko dira:	10
2.1.	Ikastetxeko produktuetako, aktibitateetako eta zerbitzuetako aldaketak.	10
2.2.	Lege-betekizunen bilakaera, bai eta ingurumen aspektuei edota Laneko Segurtasun eta Osasunari lotutakoak ere.	11
2.3.	Ingurumen aspektu esanguratsuak	13
2.4.	Parte interesdunen behar eta itxaropenak: interes-taldeen kudeaketa eta satisfazioaren neurketa.	16
2.5.	Kudeaketa-Politikari buruzko gogoeta	16
3.	Ikuskapenak:	17
3.1.	- Barne-ikuskapenak (B.1 Eranskina)	17
3.2.	- Kanpo-ikuskapena (B.2 Eranskina)	17
4.	Kudeaketa-sistemaren jardura eta eraginkortasuna, ondorengoetan emandako eta eman daitezkeen aldaketak eta joerak barne	17
4.1.	ESTRATEGIA ERALDATZAILEA	18
4.1.1.	Bezeroen satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.	18
4.1.2.	Helburuen betetze maila	19
4.1.3.	Prozesuen jardura eta emandako zerbitzuen adostasuna	19
4.1.4.	Intzidentzien ikerketa; ez adostasunak eta ekintza zuzentzaileak	20
4.1.5.	Segimendu eta neurketen emaitzak. Prebentzio zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.	20
4.1.6.	Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.	20
4.1.7.	Ikuskapenen emaitzak.	21
4.1.8.	Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna	21
4.1.9.	Kanpo hornitzaileen emaitzak	21
4.2.	MDK	22
4.2.1.	Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.	22
4.2.2.	Helburuen betetze-maila.	22
4.2.3.	Prozesuen jardura eta emandako zerbitzuen adostasuna.	23

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	3

4.2.4.	Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.	25
4.2.5.	Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.....	25
4.2.6.	Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.	26
4.2.7.	Ikuskapenen emaitzak.....	26
4.2.8.	Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.	26
4.2.9.	Kanpoko hornitzaileen emaitzak.	26
4.3.	Talentuaren Kudeaketa	27
4.3.1.	Bezeroen satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.	27
4.3.2.	Helburuen betetze maila	28
4.3.3.	Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna	29
4.3.4.	Intzidentzien ikerketa; ez adostasunak eta ekintza zuzentzaileak	30
4.3.5.	Segimendu eta neurketen emaitzak. Prebentzio zerbitzuak emandako jarraibideen betetze maila barne.	31
4.3.6.	Lege betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.....	33
4.3.7.	Ikuskapenen emaitzak.....	33
4.3.8.	Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna	33
4.3.9.	Kanpo hornitzaileen emaitzak	34
4.4.	Jasangarritasunaren Kudeaketa	34
4.4.1.	Bezeroen satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne	34
4.4.2.	Helburuen betetze-maila.....	35
4.4.3.	Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.	36
4.4.4.	Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.	37
4.4.5.	Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.....	38
4.4.6.	Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.	39
4.4.7.	Ikuskapenen emaitzak.....	39
4.4.8.	Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.	40
4.4.9.	Kanpoko hornitzaileen emaitzak.	40
4.5.	Hasierako Hezkuntza	42
4.5.1.	Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.	42
4.5.2.	Helburuen betetze-maila.....	43
4.5.3.	Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.	44
4.5.4.	Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.	45

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	4

4.5.5.	Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.....	46
4.5.6.	Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.	47
4.5.7.	Ikuskapenen emaitzak.....	47
4.5.8.	Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.	47
4.5.9.	Kanpoko hornitzaileen emaitzak.	48
4.6.	Lanerako eta Etengabeko Hezkuntza.....	49
4.6.1.	Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.	49
4.6.2.	Helburuen betetze-maila.....	50
4.6.3.	Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.	51
4.6.4.	Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.	53
4.6.5.	Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.....	54
4.6.6.	Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.	54
4.6.7.	Ikuskapenen emaitzak.....	55
4.6.8.	Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.	55
4.6.9.	Kanpoko hornitzaileen emaitzak.	56
4.7.	Komunikazioa.....	56
4.7.1.	Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.	56
4.7.2.	Helburuen betetze-maila.....	57
4.7.3.	Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.	58
4.7.4.	Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.	58
4.7.5.	Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.....	58
4.7.6.	Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.	59
4.7.7.	Ikuskapenen emaitzak.....	59
4.7.8.	Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.	59
4.7.9.	Kanpoko hornitzaileen emaitzak.	60
4.8.	Berrikuntza.....	60
4.8.1.	Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.	60
4.8.2.	Helburuen betetze-maila.....	61
4.8.3.	Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.	61
4.8.4.	Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.	63
4.8.5.	Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.....	63

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	5

4.8.6.	Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.	63
4.8.7.	Ikuskapenen emaitzak.....	64
4.8.8.	Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.	64
4.8.9.	Kanpoko hornitzaileen emaitzak.	64
5.	Baliabideen egokitzapen-maila.....	64
6.	Partehartze eta Kontsultaren emaitzak	65
7.	Hobekuntzarako aukerak	65
8.	Berrikusketaren emaitzak, ondorengoei buruzko erabaki eta ekintza guztiak barne:	67
8.1.	Sistemaren eta bere prozesuen egokitasun eta eraginkortasunari buruzko ondorioak eta erabakiak, ingurumeneko eta LSoko jarduerak eta kudeaketa-sistemaren integrazioa barne. 67	
8.2.	Hobekuntza-aukerei buruzko erabakiak.	68
8.3.	Ingurumenaren kudeaketa-sistema beste atalekin integratzeko aukerak.	71
8.4.	Helburuen lorpen ezaren aurrean martxan jarri beharreko ekintzak.....	72
8.5.	Bezeroen betekizunei loturiko zerbitzuaren hobekuntza.	72
8.6.	Baliabideen beharrak.	72
8.7.	Kudeaketa-Politikan, helburu, jomugetan eta sistemaren beste elementuetan txertatu beharreko aldaketak, etengabeko hobekuntzarako dugun konpromisoarekin lerrokatutakoak.	72

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	6

1. Zuzendaritzaren aurreko berrikusketen segimenduko ekintzak.

Sistemaren aurreko berrikusketan definitutako ekintzetatik, honakoak azpimarra daitezke:

- Kanpo ikuskapenetan (AENOR, DBLO) izandako desbiderapen guztiei trataera eman zaie. Berrikusketa hau idazteko momentuan ziurtagirien mantentzea jaso dugu, ikuskapenean irekitako ezadostasuna tratatuta dagoelarik eta zenbait ekintza itxita dagoeneko.
- Lan Osasun eta Seguritate eta Ingurumeneko praktika onen zabalkundean jarraitu dugu, SOI jardunaldiak arrakastaz burutu dira.
- Gizarte ekimeneko beste erakundeekin elkarlana sistematizatzeko urrats berririk ez da eman; hala ere, horrelako erakundeekin elkarlana mantendu dugu; haien artean, HETEL, Goieki, Cáritas, Gurutze Gorria, Sarea (Elkar Ekin Lanean proiektuko kide gara).
- Arrisku psikosozialen ebaluaziotik eratorritako ekintzak garatzen joan gara (hezkuntza emozionalari buruzko formazioa), baina oraindik zenbait ekintza garatzeko ditugu.
- Ez dugu lortu Zuzendaritza eta Kudeaketa Unitateen arteko bilerak burutzea. 2025-2026ean berreskuratu beharko ditugu.
- Liderren ebaluazioari dagokionez, konpetentzia guztiak aplikazio berrian sartu ditugu. Bestetik, Tknikaren eskutik NeoBerri aplikazioaren bidezko Zuzendaritza Exekutiboaren ebaluazioa burutu da, baina ez da hobekuntza-planik oraindik diseinatu. Hurrengo ikasturtean NeoBerriren hedapenarekin jarraitu egin beharko dugu.
- Lanerako eta Etengabeko Hezkuntzan emaitzak hobetzeko hainbat ekintza burutu da: deialdien azterketa, difusioa (ez dira enpresetarako bisitak burutu), kosteen azterketa; hala ere, emaitzak langabetuen ikastaroetan oso onak izan diren moduan, oso apalak jarraitzen dute lanean ari direnei zuzendutako aktibitatean eta beherantz egin dute nabarmenki neurrirako formazioan. Estrategietan aparteko kapitulua ireki da honi aurre egiteko eta hurrengo ikasturteetan gauzatzen joan beharko gara.
- SES katalogoaren garapena burutu genuen eta FICOBAn izandako UNIRE azokan parte hartu dugu.
- Ziklo berrian (%85,7) eta espezializazio – ikastaroaren (%85,7 ere) promozionatzea ongi joan da. Laneratzeari dagokionez, orain egingo da neurketa.
- Prozesu-mapa berrirako egokitzapenerako hainbat urrats eman ondoren, Estrategia Eraldatzailearen barnean Berrikuntza eta Merkatua eta Komunikazioa mantentzea ez dugu bideragarria ikusi eta horrek beste behin ere prozesuen mapa eguneratzera eraman gaitu. 2025-2026 ikasturtean gaiarekin jarraitu egin beharko dugu.
- Intool erremintaren erabilera mugatuarekin jarraitu badugu ere, hausnarketa estrategikorako erabilgarria izan zaigu, atal bakoitzeko sarrera esanguratsuenak hartarako erabili baititugu. 2025-2026ean erabilera zabaltzen jarraitu beharko dugu.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	7

- Eraldaketa digitalari loturiko baliabideen ustiaketari dagokionez, hezkuntza arautuko zenbait esparrutan erabiltzen jarraitzen dugu (Batxilergoa, DF3, segurtasuna). Hala ere, oraindik ez dugu ez arautura eraman, salbuespenak salbuespen (soldadura simulatzaileen erabileraren bat).
- LEH prozesuaren digitalizazioari loturik, lehen erabiltzen genuen HEZILAN aplikazioaren ordezkia inplementatu dugu eta erabiltzen ari gara: LHK (Irekisoft): <https://ikastaroak.goierrieskola.eus>.
- LEHko kanpoko irakasleen konpromisoa bermatu dugu (ez da hitzartutako data baina goizago alde egin duen irakaslerik izan). Barruko irakasleekin ere kontatu egin ahal izan dugu behar izan denean erantzuna emateko.
- Lanbidek ez du 2024/2025 ikasturtean deialdi nagusirik argitaratu (langabetuak, landunak...). Hori dela eta, hurrengo ikasturterako utzi beharko dugu haiek aztertu eta egin beharreko egokitzapenak burutzea.
- Goierri Valleyko enpresentzako formazioaren definizioan eta kudeaketan parte hartzeko gure prestutasuna mantendu badugu ere, ez dugu Goierri Valleytik horretarako gonbidapen gehiago jaso.
- Gasaren kontsumoa monitorizatzeko gailuak instalatzeko helburua ez da gauzatu eta hurrengo ikasturterako utzi beharko dugu.
- Ondorioz, egiteko dugu ere datuak bistartzeko egokitzapena intranetean.
- 2024/2025 ikasturtean zehar aditu batekin harremanetan jarri gara 4. Eraikineko bero- eta hozte-sistemen konfigurazioak hobekuntzak lantzeko. Zentzu horretan lanean jarraitu beharko dugu.
- Energia fotovoltaiakoaren panelak instalatu dira eta ustiaketan ditugu dagoeneko, honela gure karbono-aztarna murrizteko bidea ireki dugu. Argiteria LED-era aldatzen jarraitu dugu, baina ez dugu oraindik amaitu. Gure karbono-aztarna IHOBEren metodoaren bidez neurtzen hasi gara. Era berean, gure erosketen zein ehuneko inguru hurbiletik datorkigun kalkulatu dugu, ekonomia zirkularraren barnean.
- Ekonomia zirkularrari buruzko europar proiektu batean parte hartzeko helburua bazegoen ere, ez dugu gauzatu.
- NDT LAB-aren egokitzapena amaitu dugu.
- 2024-2025 ikasturtean ODOO erremintaren erabilgarritasuna aztertu da mantenimendu-lanetarako, eta formazio bat jaso dugu gai horren inguruan. Emaizten arabera, ODOO erreminta egokia izan daiteke mantenimenduaren kudeaketa digitalizatzeko. Hala ere, beste aukera bat ere azterten ari gara: BUSINESS CENTRALein konektagarri den aplikazio bat ezartzea. Berrikuspen hau idazten ari garen unean, IGN enpresarekin elkarlanean aukera berri bat sortu da, haiek BUSINESS CENTRALen euskarria ematen baitigute eta aktiboen kudeaketa ere bertan egiten delako. 2025-2026 ikasturterako helburua izango da aukera biak baloratzea eta erabaki egokia hartzea, gure mantenu-prozesuen kudeaketa eraginkorrenaren alde.
- 2024-2025 ikasturtean zenbait aplikazio informatiko ezarri dira digitalizazioarekin aurrera egiteko: Document Capture, Grupo Castellako aplikazioa langilearen atarirako eta nomen kudeaketarako... Hala ere, ezarritako aplikazio hauen ustiaketan areagotu eta beste batzuen

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	8

ordezkaketarekin (ezadostasunak, inkestak) jarraitu beharko dugu 2025-2026ean.

- Zerbitzu informatikoaren berrantolaketa burutu dugu eta praktiketako ikasleen laguntzaz ere baliatu gara. Honen guztiaren ondorioz, zerbitzuarekiko satisfazioa areagotu egin da.
- Audiometriek eta zarataren neurketak emandako emaitzen ondorioz, 2024-2025 ikasturtean aurreko ikasturtean diseinatutako plangintza garatzen jarraitu da. Horren barruan, neurketa osagarriak egin dira beste ekipo batzuekin, eta aire konprimatuko sistemak kendu dira tailerrean, zarata-foku nagusietako bat zela identifikatu baitzen.
- Motel bada ere, intzidenteen komunikazioa areagotzea lortzen ari gara, baina horretan jarraitu beharko dugu 2025-2026ean ere.
- Egindako neurketek adierazten dute zarata-maila oraindik altua dela eta ez dela nabarmenki jaitsi. Horrenbestez, 2025-2026 ikasturtean neurri osagarriak aztertu eta aplikatzen saiatuko gara, egoerari erantzun egoki bat emateko.
- Gure arautuko ikasleen kaptazioa gure egungo eskaintzara egokitu dugu eta oso emaitza arrakastatsuak izan ditugu.
- Tutoretza eta komunikazioarekiko satisfazioaren aurreko urteko emaitzek eraman gintuen alderdi hauek bereziki zaintzera eta 2024/2025ean adierazleek gorakada nabarmena izan dutela esan beharra dugu: gurasoen batezbestekoa azkeneko 5 urtetako altuena izan da eta aipagarria Batxilergoko ikasleen satisfazioak izandako gorakada.
- Ez dugu Hasierako Hezkuntzako Etapa desberdinen ikasleen arteko elkarrekintzarik gauzatu.
- Batxilergoko ikasleek STEAM gazteen artean zabaltzeko, Ingeniaritzako irakasleekin batera tailerrak burutu dituzte.
- Ikasketa-egoeren definizioan aritu bagara ere, ikasturte amaieran erreklamazio esanguratsua izan genuen Batxilergoan. Honek 2025-2026 ikasturtean gaiarekin jarraitzea behartzen gaitu. Bestetik, USaP berrirako egokitzapenak burutu ditugu, baina prozesua amaitu ez denez, 2025-26 ikasturtean horrekin jarraitu beharko dugu.
- Nazioartekotzerako jasotako dirulaguntzen emaitza honakoa izan da: 7 ikasle 2 hilabetez eta 2 irakasle 4 egunez egin dituzte egonaldiak; honek 11.616€ suposatu du. Jasotako dirulaguntza 33,780€ bi urterako izan zelarik, diferentzia 2025/2026 ikasturtean gauzatu beharko dugu.
- Lanbide Heziketako antolaketan egindako aldaketen ebaluazioa honakoa da: enpresek, orokorrean ongi hartu dute 4+4 formatua; ikasleen artean, berriz, ostiraletan klaserik izan ez zutela, harrera ona izan zuen; hala ere, neurketa definitiboa aurten izango da, non kurrikuluma bere osotasunean izango duten.
- Hausnarketa estrategikoa burutu dugu, baina hartatik ez da ez bisioan ez eta Kudeaketa-Politikako aldaketarik eratorri.
- Baliabide Ekonomikoen Kudeaketaren barruan lauhileko itxiera partzialak egin ahal izateko urratsak eman badira ere, oraindik ez dugu erabat lortu.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	9

- Iruzurren aurkako plana edo protokoloa ezarri beharra zehazterik ez dugu izan. 2025-2026 ikasturtean horrekin jarraitu egin beharko dugu.
- 4/2023 legearen (LGTBI) eta 10/2022 (askatasun sexualaren) lege organikoetarako egokitzapenekin jarraitu dugu indarrean ditugun protokolo eta planetan.
- Online formazioaren difusioan gastu gehiagorik ez egitea erabaki zen. Azpiegitura mantendu egiten dugu.
- Gure irakasleen SES formazioarekin jarraitu dugu eta 2 irakaslek (JZk eta JEK) formazioa jaso dute. Horrela, jubilatuko zaigun MI-ren ordezkatzeari prestatzen ari gara.
- HETELen bitartez, itunen gaurkotze-prozesua gertutik jarraitu dugu.
- 2023/2024 ikasturtean izandako bajak koiunturalak izan direla ondorioztatu da, 2024/2025 ikasturtean zenbakiak nabarmenki jaitsi dira eta.
- Hasiera batean pertsonen kudeaketarako erreminta aproposatzat ODOO hartu bagenuen ere, guk ezarrita genuen kudeaketara ez zela egokitzen ikusi genuen. Ondorioz, Grupo Castellaren "Langilearen ataria" delakora egin dugu migrazioa. Hala ere, hau amaitu ez denez, ezarpena 2025/2026 ikasturtean burutzen jarraitu beharko dugu.
- Pertsonalak IKT akreditazioak maila onean eskuratu ditu. Administrazioaren eskakizunetara egokitzen jarraituko dugu 2025/2026ean.
- Formazio-planak definitzen jarraitu badugu ere, ez da ekimen berezirik gauzatu haiek gaitasun-mapekin lerrokatzeke.
- Jardueraren ebaluaketaren sistematizazioan ez dugu aurrera pausurik ematea lortu.
- Era berean, Eskolako pertsonen osasuna hobetzeko ekimen berriren bat (kirola, alkohola, kolesterola, pisua...) martxan jartzeko helburua ez da gauzatu.
- Komunikazioari dagokionean, 2024/2025 ikasturtean Tiktok sarearen bidez difusioa egiteko ikasleak inplikatu genituen. 2025/2026 ikasturteari begira, praktika hau bertan behera uztea erabaki da gazteak sare sozialetatik urruntze aldera.
- 2024-2025 urtean gure intranetaren bitartez kultura prebentiboari buruzko zenbait berri zabaltzeko ditugu. Ohiturari eutsi egin beharko diogu 2025-2026ean ere.
- Elkartek proiektu baterako eskaera luzatu genuen MUREkin batera, RVCTI eta HUBeko kide garenez baliatuz; hala ere, ez ziguten onartu.
- Beteku taldean parte hartzen jarraitu dugu.
- Nahiz eta deialdi berririk ez den izan, 4 proiektutan Estatuko beste ikastetxeekin elkarlanean jarraitu dugu eta, ondorioz, erlazioa mantendu dugu.
- Hornitzaile esanguratsuen zerrenda ez da berrikusi eta ondorioz, garraio-enpresa bertan ez da sartu.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	<i>Orri zenbakia</i>
	<i>PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA</i>	10

2. Kanpo eta barneko gaietako aldaketak, kudeaketa-sistema integratuari eragin diezaieketenak; hauen barnean honakoak kontuan hartuko dira:

2.1. Ikastetxeko produktuetako, aktibitateetako eta zerbitzuetako aldaketak.

Hezkuntza arautuari dagokionean, aurtengo ikasturtean (2024/25), aldaketa bakarra izan da. Lanbide Heziketako espezializazio ikastaroen eskaintza, ezin izan da Fabrikazio Aditiboko eskaintza mantendu. Gainontzeko eskaintza, berriz, bere horretan mantendu da.

Eskaintza horren emaitzari dagokionez, orohar, etapa eta maila guztietako taldeak erabat osatu dira. Nabarmentzekoa, espezializazio ikastaroetan, "Trenbideetako materialen mantentze-lan aurreratua" zikloaren matrikulazioan izandako gorakada (datorren 2025/26 ikasturtera begira). Aurtengo 8 ikasletik, datorren ikasturteko 15era pasa baikara.

Kontzertutik aparteko eragina izan dezaketen gaien artean deialdiak ditugu; 2024an, berriro ere langabetuei eta lanean ari direnei zuzendutako deialdiak publikatu zituzten; honakoak dira kontuan hartu beharrekoak:

1. Deialdiak urte baterako atera zituzten.
2. Gizarte segurantzaren alta eman beharra mantendu egin da praktiken gauzatzerako. Era berean, aurreko deialdirako txertatutako neurriek (ikastetxean praktikak egin ahal izatea) indarrean jarraitu dute.
3. Jakinarazi ez dituzten arrazoiengatik lanean ari direnei zuzendutako deialditik orain artean indarrean egon diren kalitate, ingurumen, segurtasun eta euskararen ziurtagirien balorazioa kendu egin dute. Horrela, ikuspegi honetatik izan genezakeen abantaila desagertu egin da. Langabetuen deialdian, berriz, mantendu egin dute.

Eskaera bidali genuen eta langabetuei zuzendutako formazioan eskatutako 4 ikastaroak eman zizkiguten; lanean ari direnei zuzendutako formazioan, berriz, eskatutako 16 ikastaroetatik, 11 eman zizkiguten. Eman ez zigutenak pertsonen arretako arlokoak izan ziren, puntuazio apalegiak lortu genituelako Lanbidek jarraitutako irizpideen arabera. Digitalizazioko deialdira jo genuen eta honetan lehenik behin behineko ebazpenean eta ondoren behin betikoan ez ziguten inongo ekintzarik onartu.

Era berean, enplegu-nitxo berrien deialdian parte hartu genuen eta emandako 5 ikastaroak ematea lortu dugu 2024/2025 ikasturtean. Inbertsioen deialdian, eskatutakoa eman ziguten.

Berrikusketa hau idazten ari garen honetan oraindik Lanbidek ez ditu langabetuei eta landunei zuzendutako deialdiak publikatu. Honek ia ezinezkoa egingo du 2025/2026 ikasturteko lehenengo hiruhilekoan haiei lotutako ikastaroei hasiera ematea.

Deialdien ugaritasun honek oraindik zailago jarriko du ohiko deialdietan taldeak osatu ahal izatea.

2021-2022 ikasturtean ezohiko beherakada nozitu genuen lanean ari direnei zuzendutako formazioan eta ez dugu lortu ordutik egoera zuzentzea, 2024/2025 ikasturteko martxak ildo beretik jarraitu duelarik. Langabetuei zuzendutako eskaintza, berriz, finantzatutako talde guztiak osatzea lortu da; neurrirako formazioan, era berean, aurreko urteko beherakadak eragiten jarraitu digu.

Txilerekin harremanak jarraitu ditugu Tknikatik kanpo; abenduan Txileko irakasleen talde batek astebetez gure artean egiteko aukera dago.

Momentuz, Udalek finantzatutako formaziorik ez dugu aurreikusten.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	11

Goiekirekin elkarlanean bazterketa-arriskuan daudenei zuzendutako eta Foru Aldundiak finantzatutako Elkar-Ekin Lanean proiektuan jardun gara. Bi urtetarako deialdia izan da. Gure partehartzeak bi alor ditu: koordinazio-taldean parte hartu eta formazioa eman (oinarrizko gaitasun digitalen 4 60 ordutako ikastaro). 2025/2027 deialdi berrian, kudeaketan partehartzeak ez du finantziatorik izango eta emandako formazioa besterik ez digute finantzatuko. Goiekik horrela erabakita haiekin adostutako Sukaldaritza arloko bi ikastaroetako lehenengoa ez da Lanbide barruan emango. Haiek hautatu dute irakaslea, ikasleak eta praktikak kudeatuko dituzte. Gure ekarpen bakarra instalakuntzak uztearena izango da.

Goierri Valleyrekin 2020/2021 ikasturtean sinatutako hitzarmenaren ondorioz, 2021/2022 ikasturtean enpresen beharrei erantzuteko plana kudeatu eta gauzatu genuen eta 2022/2023 ikasturtean galdeketa berri bat prestatu genuen, enpresetara bidali eta jasotako erantzunen ondorioz, lehentasun berriak markatu zirelarik. 2023/2024 eta 2024/2025 ikasturteetarako plangintza diseinatu genituen eta 2023/2024an gauzatzen joan ginen, baina 2024/2025ean ez dugu atal honetan aktibitatearik izan eta ez dugu aurreikusten izango dugunik ere.

Era berean, Goierri Valleyk eratutako hainbat mahaitan parte hartzen jarraitzen dugu: Komunikazioa, erosketa, pertsonen kudeaketa, segurtasuna.

2019-2020 ikasturtearen amaieran, Sailburuordetzatik, "Antolaketa Egitura Berriak" izeneko proiektuan parte hartzeko gonbidapena jaso ondoren, 2024-2025 ikasturtean zehar Sailburuordetzak deituriko bileretan parte hartzen jarraitu dugu. Horren ildotik, gure kudeaketa sistemaren eraldaketaren lehen pausoak garatu ditugu (prozesuen mapatik hasita), Lanbide Heziketako VI. Planak eta Sailburuordetzako egitura berrien planteamenduak kontutan izanik. 2024/2025 ikasturtean SIP eta intranetean egin beharreko aldaketak txertatzen hasi gara, baina zenbait kasutan lehengo prozesuen taldekatzea oso zaila egin zaigula, prozesu – mapa berri bat definitu dugu; era berean, Sailburuordetzan izandako aldaketaren ondorioz, gai honi buruz aldaketak egon zitezkeela aurreikusi bagenuen ere, ez dugu berririk izan; ondorioz, 2025-2026 ikasturte honen amaierarako aldaketa burututa izan beharko dugu.

2020-2021 ikasturtean zehar martxan jarritako gela digital berrien erabilera bultzatuz jarraitu dugu aurtengo 2024/25 ikasturtean. Gela digital horien (murgiltzailea, interaktiboa, gela adimenduna+ Living lab eta eduki digitalak sortzekoa) erabilera sustatu nahi izan bada ere, ez da nahi bezain besteko erabilera ematerik lortu.

2.2. Lege-betekizunen bilakaera, bai eta ingurumen aspektuei edota Laneko Segurtasun eta Osasunari lotutakoak ere.

Lege betekizunen bilakaeran, honakoak dira Eskolari eragin diezaieketen faktore esanguratsuak:

- LOMLOE-ren ezarpenaren eskutik konpetentzien araberako ebaluazioa garatu beharrean gaude Batxilergoan. Horretan hasiak ginen 2023-2024 ikasturtean eta 2024-2025 ikasturterako ezarrita behar genuen. Hala ere, ez genuen amaitu; aldi berean, ikasle baten gurasoek erreklamazio bat jarri zuen ikuskaritzan eta honek arrazoia eman zien, gure ebaluazio-prozesuak indarrean dagoen konpetentzia bidezko ebaluazioarekin bat ez zetorrelako. Ondorioz, 2025-2026 ikasturterako ikasgai guztietan konpetentzia bidezko ebaluazioa definituta izango dugu. Era berean, USaP berria indarrean sartzen ari da, mantso-mantso. 2025eko USaP azterketetan aldaketaren bat burutu zen eta 2026ko ereduak aldaketetan ildo horretatik jarraituko duela espero dugu.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	12

- Lanbide Heziketako legea indarrean dago 2023ko apirilaren 1etik. 2021-2022 ikasturtean Dual Arrunta eta Dual Aurreratua, biak martxan jarri genituen Goi Mailako taldeetan. 2022-2023an berdin jarraitu genuen eta 2023-2024ean ezarpenarekin jarraitu genuen. 2024-2025ean erabateko ezarpena izan da eta horretarako egutegiak eta ordutegiak moldatu ditugu. Eskaintza modularren ezarpenari buruz, zera esan behar da: hartan parte hartzeko gonbidapena jaso genuen baina uko egin genion, eskatzen zituen baldintzak ikusi ondoren. 2024/2025 ikasturtean eskaria egin genuen arren, ez ziguten C modulurik eman, gure egoeran (lehendik C modulurik ez izatea, alegia) zeuden beste ikastetxeei bezalaxe.

Era berean, guregan eragina duten honako legeak indarrean sartu dira 2024-2025 ikasturtean zehar:

- 214/2025 Errege Dekretua, martxoaren 18koa, karbono-aztarnaren erregistroa sortzen duena.
- 712/2025 Errege Dekretua, abuztuaren 26koa, bizitza baliagarriaren amaierako pneumatikoei buruzkoa.
- 164/2025 Errege Dekretua, martxoaren 4koa, Industria Establezimenduetako Suteen aurkako Segurtasun Erregelamendua – RSCIEI – onartzen duena.
- 1026/2024 Errege Dekretua, urriaren 8koa, enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako neurri planifikatuak garatzen dituena.

2.3. Ingurumen aspektu esanguratsuak

ZUZENeko ASPEKTUAK

2024/2025 ikasturtean ingurumen aspektuen ebaluazioaren ondorioz, honakoak aukeratu dira esanguratsu modura:

Goierri eskola		INGURUMEN ASPEKTUAK EBALUAZIO ETA ERREGISTROA											Orri. Zk: 1
		PROZESUA: INGURUMEN ASPEKTUAK											
01/09/2024 - 30/04/2025				2023/2024		2024/2025		EBALUAZIOA					
Aspektu zk.	Aspektu mota	Ingurumen aspektuak	UD.	REF.	B. ABSOLUTUA	RATIOA	B. ABSOLUTUA	RATIOA	Diferentzia (%)	C1 Magnituda	C2 Arriakugarrit.	Garantziaren balioa	Garantziak BAI / EZ
1	CA	Ur-kontsumoa	m3	(2)	1.167	1,01	1.426	1,17	115%	10	10	100	BAI
2	CE	Elektrizitate kontsumoa	Kwh	(2)	477.300	415,04	436.878	358,68	86%	6	10	60	BAI
3	CE	Gas natural	Kwh	(2)	484.044	420,91	464.154	381,08	91%	6	10	60	EZ
4	CMA	Olio kontsumoa	litros	(1)	105	0,11	110	0,10	98%	6	10	60	EZ
5	CMA	Soldadura gasak kontsumoa	m3	(1)	1.831	1,83	1.796	1,68	92%	6	10	60	EZ
6	CMA	Disolbatzaileak	kg	(1)	100	0,10	32	0,03	30%	2	10	20	EZ
7	CMA	Zelulosa-paper	kg	(1)	1.400	1,40	1.400	1,31	94%	6	6	36	EZ
8	CMA	Pinturak	l	(1)	80	0,08	80	0,07	94%	6	10	60	EZ
9	CMA	Garbiketako-produktuak	kg	(1)	100	0,10	100	0,09	94%	6	10	60	EZ
10	CMA	Laborategiko produktuak	litros	(1)	1	0,00	1	0,00	94%	6	10	60	EZ
11	CMA	Taladrina	kg	(1)	90	0,09	100	0,09	104%	6	10	60	EZ
12	CMP	Altzairu kontsumoa	kg	(1)	34.312	34,31	31.703	29,68	87%	2	6	12	
13	CMP	Aluminio kontsumoa	kg	(1)	350	0,35		0,00				0	
14	CMP	Altzairu herdoigaitz kontsumoa	kg	(1)	600	0,60		0,00				0	
15	CMA	Letoi kontsumoa	kg	(1)		0,00		0,00				0	
16	CMA	Kobre kontsumoa	kg	(1)		0,00		0,00				0	
17	CMA	Paper kontsumoa	kg	(1)	1.600	1,60	2.000	1,87	117%	10	6	60	EZ
18	RNP	Landare-olioa erabilia	l	(1)	190	0,19	295	0,28	145%	10	2	20	EZ
19	RNP	Errefusa	kg	(1)	550	0,55	600	0,56	102%	6	6	36	EZ
20	RNP	Paper-hondakinak	kg	(1)	1.000	1,00	1.100	1,03	103%	6	2	12	EZ
21	RNP	Materia organikoa	kg	(1)	550	0,55	600	0,56	102%	6	2	12	EZ
22	RNP	Tinta-kartuoen hondakinak	kg	(1)	1	0,00	1	0,00	94%	6	6	36	EZ
23	RNP	Inprimatze-tonerren hondakinak	kg	(1)	28	0,03	11	0,01	37%	2	6	12	EZ
24	RNP	Baztertutako ekipoinformatikoak	ud	(1)	20	0,02	22	0,02	103%	6	2	12	EZ
25	RNP	Egur hondakinak	kg	(1)	200	0,20	220	0,21	103%	6	2	12	EZ
26	RNP	Kartoi hondakinak	kg	(1)	175	0,18	200	0,19	107%	6	2	12	EZ
27	RNP	Altzairu-bataarrak	kg	(1)	41.580	41,58	18.380	17,21	41%	2	6	12	EZ
28	RNP	Kobre bataarrak	kg	(1)	230	0,23		0,00	0%			0	EZ
29	RNP	Altzairu herdoigaitz bataarrak	kg	(1)	690	0,69		0,00	0%			0	EZ
30	RNP	Aluminio bataarrak	kg	(1)	380	0,38		0,00	0%			0	EZ
31	RNP	Letoi bataarrak	kg	(1)		0,00		0,00				0	EZ
32	RNP	Ontzi-hondakinak	kg	(1)	550	0,55	500	0,47	85%	6	10	60	EZ
33	RNP	Gurpilak	ud	(1)	4	0,00		0,00	0%				
34	RP	Pila-hondakinak	kg	(1)	10	0,01	10	0,01	94%		10	0	EZ
35	RP	Mekanizazio lokatzak (Lodos de mecanizado)	kg	(1)		0,00		0,00					
36	RP	Gasolina y gasoil residual	l	(1)		0,00		0,00					
37	RP	Hondakin arriskutsuez kutsatutako solidoak (Sólidos impregnados sustancias peligrosas)	kg	(1)	238	0,24	122	0,11	48%	6	10	60	EZ
38	RP	Olio zaharrak (aceite usado)	kg	(1)	270	0,27	360	0,34	125%	10	10	100	BAI
39	RP	Kutsatutako edukinontzi metaliko hutsak Envases metálicos contaminados vacíos	kg	(1)	35	0,04	5	0,00	13%	2	10	20	EZ
40	RP	Destilatutako lokatzak Lodos de destilado	kg	(1)	1	0,00	2	0,002	187%	10	10	100	EZ
41	RP	Baztertutako pinturak (Pinturas fuera de uso)	kg	(1)	39	0,04		0,00					
42	RP	Laborategiko produktuak Productos de laboratorio	kg	(1)	0	0,00		0,00					
43	RP	Ahitutako taladrinak (Taladrinas agotadas)	kg	(1)	0	0,00		0,00					
44	RP	Sepiolita bustia (Sepiolita impregnada)	kg	(1)	0	0,00		0,00					
45	RP	Aerosolak (aerosoles)	kg	(1)	33	0,03	45	0,04	128%	10	10	100	EZ
46	RP	Kutsatutako plastikozko edukinontzi hutsak Envases de plástico contaminados vacíos	kg	(1)	58	0,06	58	0,05	94%	6	10	60	EZ
47	RP	Soldadurako lumin-hautsa Polvo de vapor de soldadura	kg	(1)	0	0,00		0,00					
48	RP	Lixatze-hautsa (Polvo de lijado)	kg	(1)	7	0,01		0,00	0%				

- **Elektrizitate kontsumoa:** Guretzako kritikoa eta esanguratsua den aspektu honen hobekuntzan lanean jarraituko dugu.
- **Ur-kontsumoak:** Aktibitate igoerak ekarri du adierazle hau esanguratsu bilakatzea.
- **Olio zaharrak:** Aktibitate igoerak ekarri du adierazle hau esanguratsu bilakatzea.

2025/26 ikasturtean energia-eraginkortasuna hobetzeko lanean jarraituko dugu.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	14

ZEHARKAKO ASPEKTUAK

Bai ingurumena bai laneko seguritateari loturiko sentsibilizazioan erdietsitako mugarriak dira azpimarratzekoak arlo honetan:

o **SOI JARDUNALDIAK**



Goierri eskola
Ikaslan

SEGURTASUN, OSASUN eta INGURUMENAREN
13. JARDUNALDIAK
2024-ko URRIA

HOBETUNTZA GUZTIONTZAT

ASTEARTEA 22
NIPPON GASES: gasen segurtasuna
Ordua: 10:30 - 12:00
Gela: 3009

ASTEAZKENA 23
ODOL EMATEA
Ordua: 10:00 - 14:00
Gela: 3509

OSTIRALA 25
HEZKETA DIGITALA: Macsonrisas
Udako Linakasari
Ordua: 09:00 - 13:00
Gela: 3009

ASTELEHENA 28
GIJ DINAMIKA IKASLEKON
Ordua: 08:00 - 09:30
Gela: Ikasgeletoa

ASTEARTEA 29
GAMESA - JSP SAFETY
Entzumen babesa (David Gurbindol)
Ordua: 08:50 - 09:50
Gela: 3009

ASTEAZKENA 30
AGE - GIPUZKOAKO EPILEPSIA ELKARTEA
Ordua: 10:00 - 11:00
Gela: 3009

OSTEGUNA 31
ESEKI S.A.L. - ENERGIA BERRITZAGARIAK
Ordua: 09:00 - 10:00
Gela: 3009

ASTELEHENA 4
ATZEGI: Desgaitasun intelektuala duten pertsonen aldeko Gipuzkoako Elkartea
Ordua: 10:00 - 11:00
13:00 - 12:00
Gela: 3009

ASTEARTEA 5
CYBER ZAINTZA
Ordua: 09:00 - 11:00
11:00 - 13:00
Gela: 3009

ASTEAZKENA 6
KONTSUMOBIDE
Energia • Mugikortasuna
Ordua: 10:00 - 11:00
11:00 - 12:00
Gela: 3009

OSTIRALA 8
BABESA SUZAI:
SU ITZALGAILUAK
Ordua: 11:00 - 12:00
Gela: Kalean

URRIAK 28 - AZAROAK 4
ZABALKETA Erakusketak
Ingurumena eta Giza Eskubideak
Ordua: 08:00 - 16:00
Gela: 3009

AZAROAREN 19
LUDOPATIA
KONTZABIBE (Josean Barcenilla)
Ordua: 10:00 - 11:00
Gela: 3009

AZAROAREN 26
IAN ARRISKUEN PREBENTZIOA
ROYAL VAN BEST GROUP
Ordua: 09:30 - 12:30
Gela: 3009


URTARRILEAN...
AGIPAD: Droga kontsumoaren prebentzioa
Mugikortasun erabilera
Heziketa sexuala
CRI (Ikusmen urritasuna)

SOI DATUEN AUKAZPENAK (KEEASI)
URRIAK 30
KASLAN
PUBLIKAZIOAK:
URRIAK 30
PLAKA FOTODUATANDAK
Ikaslan Fundazioan
BIZIKLETAK • PATINETZAK
APARKATZEKO Gunea

HOBETUNTZA GUZTIONTZAT:
Bereiztasun giza guztiek bizimodu onak eta
betea lortzeko aukera izan dezaten, eta
aurrerabide ekonomiko, sozial eta teknologiko
notuzarekiko harmonia gauza dadin.



- Teknodidaktikako txartel profesionalak lortzeko ikastaroak



ASPEKTU POTENTZIALAK

Ez dira aspektu esanguratsurik antzeman.

INGURUMENARI LOTURIKO HOBEKUNTZAK

- Plaka fotovoltaikoak (Potentzia 71,28 kWh)



INGURUMEN-AZTARNAREN EMAITZAK

Urte naturaleko karbono-aztarnaren kalkulua egin dugu, erakundeentzako karbono aztarna tresna hauen bidez:

CLIMATE & CIRCULARITY CALCULATOR Herramienta Web

 CLIMATE & CIRCULARITY CALCULATOR by Rhobe			Resultados Huella de Carbono s/ISO-14064	
URTEA	Aldaketa klimatiko-inpaktu absolutua (t CO₂e)	Impacto cambio climático relativizado (t CO₂e/Ud)		
2023	584,15	0,55		
2024	467,08	0,47		

2.4. Parte interesdunen behar eta itxaropenak: interes-taldeek kudeaketa eta satisfazioaren neurketa.

Hiru urtez behin, Hausnarketa Estrategikoaren barnean, Interes-Taldeek behar eta itxaropenak arakatzen ditugu eta haiek dira gure helburuen ezarpenerako informazio-iturri garrantzitsua. 2025aren lehenengo hiruhilekoan berriro ekin diogu ekimen honi, hausnarketa estrategiko berriaren atari modura. Besteetan bezalaxe bide desberdinak erabili ditugu: inkesten analisia, behar eta itxaropenen bilketa (bilerak, galdetegiak). Interes-talde anitzari galdetu zitzaion: Egungo ikasleak eta familiak, ikasle ohiak, udalak, enpresak, gizarte-ordezkariek eta erakundeak, Administrazioa, itunkideak, hornitzaileak, Fundazioko pertsonak... Bereziki estrategiak zeri erantzutea nahi genuen definitu genuen hasieran, eta Zuzendaritza taldean eta Zuzendaritza Kontseiluan saio bereziak egin dira estrategiak lantzeko.

Satisfazioaren neurketa-plana burutu da eta orokorrean, emaitzak onak izan dira (ikus laugarren puntua).

2.5. Kudeaketa-Politikari buruzko gogoeta

2023/2024 ikasturtean ondorengo aldaketak egin genituen:

- ✓ **Garapen Jasagarriko Helburuak eskuratzen lagundu.**
- ✓ **Hezkuntza-komunitatea osatzen duten *pertsona guztien garapenean aukeraberdintasuna bermatzea*, haien jatorria, sexu- edo genero-identitatea, gaitasun fisiko eta intelektualak edo sinesmenak edozein direla ere, arrazoi horiengatik *diskriminazioa eta jazarpena baztertuz*.**

2024/2025ean ez da aldaketarik izan.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	17

3. Ikuskapenak:

3.1. - Barne-ikuskapenak (B.1 Eranskina)

Barne-ikuskapenak planifikatutakoaren arabera burutu dira. Antzemandako desbiderapenei araututako trataera eman zaie eta sisteman behar izan diren ezadostasunak ireki eta kudeatu dira.

3.2. - Kanpo-ikuskapena (B.2 Eranskina)

Maiatzaren 5 eta 6an burutu zen mantentze-auditoria. Ikuskapen honen ondorioz ezadostasun bat ireki zen: legionelosiaren prebentziorako hiruhilekoko neurketetan ez ziren aerobioak eta burdin totala neurtzen. Ezadostasunak dagokion trataera jaso du eta dagoeneko desbiderapena zuzenduta dago.

Lanbidek ez digu inongo ikuskapenik pasa 2024-2025 ikasturtean.

Urteroko lege, ikuskapen ekonomikoa izan dugu eta emaitza adosekoa izan da. Txostenak bere onarpena jaso du Fundazioko organoetan eta haren edukia komunikatu egin da Eskola barnean ere.

Datu babesen kudeaketaren segimendua irailean burutu genuen. Ez da oraindik 2025eko ikuskapena gauzatu.

4. Kudeaketa-sistemaren jarduera eta eraginkortasuna, ondorengoetan emandako eta eman daitezkeen aldaketak eta joerak barne

Ondorengo atal honek, honako hauei emango die erantzun, prozesuz prozesu:

- 1.1. Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.
- 1.2. Helburuen betetze-maila.
- 1.3. Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.
- 1.4. Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.
- 1.5. Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.
- 1.6. Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.
- 1.7. Ikuskapenen emaitzak.
- 1.8. Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen egokitasuna.
- 1.9. Kanpoko hornitzaileen emaitzak

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	18

4.1. ESTRATEGIA ERALDATZAILEA

4.1.1. Bezeroen satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.

Satisfazioa neurtzeko plan bat garatuta badugu ere, honek hainbat interes-taldeen satisfazioa neurtzera ez da ailegatu. Proposamena: 2025-2026 urterako hainbat interes-taldeen satisfazioaren neurketa burutu: enpresak, hornitzaileak, itunkideak...

Batetik, Hasierako Hezkuntzako ikasleen satisfazioaren neurketa egiten dugu; hiru hileko bakoitzean irakasle eta arlo/modulu bakoitzeko pedagogia arloko 8 ezaugarri neurtzen dira eta satisfazio orokorreko beste hamar. Era berean, urtean behin, eskolako zerbitzuekiko eta satisfazio orokorreko beste inkesta bat betetzen dute ikasleek. Datu hauen analisia Talde Pedagogikoan, EEZ prozesuko taldean egiten da, eta ondorioetatik ekintzak martxan jartzen dira beharrezkoak balira.

Hasierako Hezkuntzan ere, HLH, Erdi mailako zikloetan eta Batxilergoan Familiei inkesta bat betetzera gonbidatzen zaie urtean behin. Datu hauen analisia Talde Pedagogikoan egiten da ere.

Lanerako eta Etengabeko Hezkuntzako ikasleek berriz, kurtso bakoitzeko betetzen dute satisfazio inkesta (kurtsoaren arabera) kurtso motzak direnean, eta kurtso luzeetan modulu bakoitzeko bana. LEHko azpiprozesuko taldean lantzen dira emaitzak.

Azkenik, pertsonaleko satisfazioa neurtzen duen inkesta bat ere burutzen dugu, eta guzti hauen emaitzak aztertzeko prozedurak zehaztuta daude prozesu bakoitzean. Kasu honetan, Talentuaren Kudeaketa prozesuari dagokionez, Zuzendaritza Kontseiluan lantzen dira emaitzak. Gainera, KUko arduradun bakoitzari adierazten zaizkio bere taldekoen emaitza partikularrak eta datu horiek prest daude KU bakoitzak batera egiten duten hausnarketarako.

Arestian aipatu den moduan, Batxilergoko bigarren mailako ikasle baten gurasoek erreklamazio bat jarri zuten, bere semeak behar bereziak zituela eta, gainditu ez zituen arloak gainditzat eman behar zitzaizkiola argudiatuz, titulua eskuratzeko egoera minimora arte eramanez. Gure erantzunaren arabera, emaitzek egindako ebaluazioari erantzuten ziotela eta, ez zegoen erreklamazio horretarako oinarririk.

Gurasoek, orduan, Ikuskaritzara jo zuten eta honek dokumentazioa eskatu zigun; epean eta forman eskatutako dokumentazio guztia helarazi genion; gure harridurarako, Ikuskaritzak gurasoei arrazoia eman zien, ikasleak Batxilergoko titulua eskuratzeko meriturik egin zuen edo ez baloratzera sartu gabe: haren esanetan, gure ebaluazio-sistemak ez zionez indarrean dagoen legeari (LOMLOEri) erabat erantzuten, gure ebaluazioa ez zen zuzena eta ondorioz ikasleak titulua eskuratu egiten zuen.

Honek ondorio anitzak ditu:

- Bere egoera berean geratu diren beste ikaskideentzako konparaziozko bidegabekeria suposatu du, Ikuskaritzak ofizioz ez duelako neurri bera beste ikasleekiko aplikatu.
- Ikuskaritzari, gurea zuzena ez bazen, zuzen egiten ari den Batxilergoko ikastetxeen ereduak emateko eskatu eta honek egun horrelakorik ez dutela ezagutzen aitortu zuen. Ondorioz, egokitzapenari ekin genion, ereduak han eta hemen bilatuz eta Educamos-eko hornitzailearekin hitz eginez.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	19

Dagokion ezadostasuna, araututa dugun eran ireki zen eta momentuan tratatzen hasi ginen (2025eko uztaila). Proposamena: 2025/2026ean konpetentzia bidezko eraldaketarekin amaitu beharko dugu.

Ikasturte honetan hausnarketa estrategikoa burutu denez, interes-taldeen behar eta itxaropenak bildu dira eta hauetan aurrekoez gain, enpresek, erakundeek, Hezkuntzako Administrazioak, ikasle-ohiek eta itunkideek ere parte hartu dute.

Aurreko errepikapenetan ez bezala, oraingoan Zuzendaritza Kontseiluari protagonismo berezia eman zaio hausnarketa estrategikoan, berari galdetuz ea Estrategiek zein galderei erantzun beharko lieken. Partehartze zabala izan da.

Proposamena: 2025-2026 ikasturtearen hasieran Zuzendaritza Kontseiluko kideei jarraitutako prozedurari buruzko satisfazioa galdetu.

4.1.2. Helburuen betetze maila

Estrategia, urteko planak eta adierazleen kudeaketarako SIP erreminta erabiltzen jarraitzen dugu.

Helburuetako bat LEHko sarrerak %5ean igotzea zen eta ez da eskuratu, nahiz eta helburu horren lorpenera bideratutako ekintzak (Goierrri Valley, Elkar Ekin Lanean) gauzatu diren.

Espezializazio ikastaroen eskaintza mantentzea lortu dugu eta horretara bideratutako ekintzak (Administrazioarekin erlazioa mantendu) gauzatu ditugu.

Administrazioak egindako lege-aldaketetara egokitzen jarraitzeko asmotan, C graduak eman ahal izateko egokitzapenak eta eskaerak egin ditugu (nahiz eta eman ez diguten).

Etorkinen egoera eta beharrak identifikatzeko Udalekin egiteko asmoa genuen elkarlana ez dugu burutu eta hurrengo Estrategietan eta planetan kontuan hartuko ditugu.

Era berean, Goierri Berrikuntza Guneko bilera-plangintza ez da burutu Lortekek izandako zuzendari aldaketa zela eta. Goierri Valley erakundeko lan-taldeetan, berriz parte hartzen jarraitu dugu.

Antolaketa egitura berrien ezarpenean urratsak eman baditugu ere, ez dugu oraindik amaitu eta hurrengo ikasturteko planera pasa dira ekintzak.

Adimen Lehiakorren sistematika definitu badugu ere, oraindik ezarpena nahiko motz geratu da eta hurrengo ikasturtean ere landu beharko dugu.

Urteko helburu nagusia bete dugu: 2025-2028 estrategien definizioa. Aurreko puntuan azaldutakoaren arabera, prozedura zertxobait hobetu egin dugu, Zuzendaritza kontseiluaren partehartzea areagotuz. Era berean, Adimen Lehiakorreko behaketatik (Intooletik) jasotako informazioa ere ebaluatu eta kontuan hartu izan da. Esan, epeak ozta-ozta bete izan ditugula eta uztailan Estrategien helburu nagusiak Erakundeari komunikatu zaizkiola. Irailetik aurrera adierazleen helburuak eta urteko planak definituko dira.

4.1.3. Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna

Prozesuaren jarduera, aurretik esandakoaren arabera, egoki burutu da; hala ere, urtero dugun hobekuntza, desbiderapenen aurrean eraginkorrak izatearena dugu. Proposamena: Zuzendaritza mailan kudeaketari buruzko bilera monografikoak burutzea hiruhileko maiztasunarekin.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	20

Ez da ezadostasunik izan prozesuan eta kudeaketa-sistema mantendu egin da, kanpoko ikuskapenak agerian jarri izan duen moduan. Hala ere, beharrezkoa dugu gure sistema prozesu-mapa berrira lehenbailehen egokitzea. Proposamena: 2025-2026 ikasturtean mapa berrirako sistemaren egokitzapenarekin amaitu.


4.1.4. Intzidentzien ikerketa; ez adostasunik eta ekintza zuzentzaileak

Aurreko puntuan azaldutakoaren moduan, ez da ezadostasunik izan eta barne-ikuskapenean erregistratutako oharrari trataera eman zaio.

4.1.5. Segimendu eta neurketen emaitzak. Prebentzio zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.

Adierazleetako helburu guztiak bete dira honakoa ezik; "KE: Helburu estrategikoen betetze-maila", %75ean lortu delarik (helburua %85 izanik); antzeko emaitzak urteko planaren betetze-mailari dagokionean ere. Honi aurre egiteko aurreko 4.1.3. puntuan azaldutako proposamena (kudeaketaren ebaluaziorako bilera monografikoak burutzea, alegia).

Lortu direnetatik aipagarrienak satisfazioarekiko hauek dira:



4.1.6. Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.

Kokapen estrategiko prozesuan, legediaren aldaketak gordetzen eta banatzen ditugu erreminta desberdinak erabiliz (Legoan, EHAA, Intraneteko legediari buruzko zerrenda...).

2025/2026 ikasturtean hezkuntza-legediak sortutako eragin nagusia Batxilergoko LOMLOEaren araberrako ebaluaketan izan da. Aurreko puntuan esandakoaren arabera,

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	21

guraso batzuek jarritako erreklamazioari trataera ematen hasiak gara. Proposamena: Batxilergoko ebaluazioa LOMLOEra egokitu 2025-2026 ikasturtean.

Lanbide Heziketako legedia Erkidego Autonomora egokitzeko, 2025eko uztailaren 1ean 110/2025 Dekretua publikatu zuten, maiatzaren 27koa; honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko lanbide-heziketako ikastetxe integratuak arautu dira. Dekretu honek, besteak beste, Antolaketa Egitura Berriek ezarritako hainbat kargu kontuan hartu ditu.

Segurtasuna eta ingurumenari dagokienez, ondorengo lege berriak edo haien indarrean sartzeak identifikatu ditugu:

- 214/2025 Errege Dekretua, martxoaren 18koa, karbono-aztarnaren erregistroa sortzen duena.
- 712/2025 Errege Dekretua, abuztuaren 26koa, pneumatikoen bizitza baliagarriaren amaierari buruzkoa.
- 164/2025 Errege Dekretua, martxoaren 4koa, Industria Establezimenduetako Suteen aurkako Segurtasun Erregelamendua – RSCIEI – onartzen duena.
- 1026/2024 Errege Dekretua, urriaren 8koa, enpresetan LGTBI pertsonen berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako neurri planifikatuak garatzen dituen.

4.1.7. Ikuskapenen emaitzak

2025eko martxoaren 21ean barne ikuskapen bat izan zuen Estrategia Eraldatzailea prozesuak. Ez zuen ezadostasunik jaso. Kanpo ikuskapenak ere ez zuen prozesu honi loturiko ezadostasunik jaso.

4.1.8. Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna

Orokorrean, arriskuei aurre egiteko definitutako ekintzak gauzatu egin dira, hala ere, LEHari dagozkion emaitzak espero zirenen oso azpitik geratu zaizkigu. Honakoak dira prozesuaren memorian jasotakoak:

Aurreko ekitaldiko ekintza	Eraginkortasuna	Ekintzaren ebaluazioa	Datorren ekitaldirako gomendioa
Modularitateak LEHn izan dezaken eraginaz baliatu.	Baxua	Ez digute eman C gradua eskaintzeko baimena eta Lanbidek ez du bere deialdian horretarako aukera eman, orain artean.	Mantendu
LEH-ko neurrirako kurtsoen garapena landu: Goierri Valley / Online / lanean daudenentzako erakargarritasuna landu.	Baxua	Oso emaitza kezagarriak bai landunei zuzendutako ikastaroetan, bai eta enpresentzako neurrira egindako ikastaroetan.	Mantendu

4.1.9. Kanpo hornitzaileen emaitzak

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	22

Prozesu honetan kanpo hornitzaile bakarra eZerbitzuak izan da. Estrategia, plan eta adierazleen kudeaketarako erremintaz hornitzen gaituzte. Haiek garatutako SIP erabiltzen dugu eta hainbat egokitzapen egin behar izan ditugu gure beharretara egokitzeko. Gure balorazioa honakoa da: oso erantzun azkarra eta oso prezio egokian ematen digu.

4.2. MDK

Kudeaketa-sistemaren jarduera eta eraginkortasuna, ondorengoetan emandako eta eman daitezkeen aldaketak eta joerak barne:

4.2.1. Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.

MDK prozesuaren barruan, bezeroaren satisfazioari dagokion neurketa zuzenik ez da burutu. Egindako ekintzei buruzko haietara mugatu da.

Izenemate eta matrikulazioari dagokionean, ez da inongo kexarik jaso.

4.2.2. Helburuen betetze-maila.

Arlo finantzarioan, eskaintza osatzen duten ia talde guztietan, matrikulazio kopuru altuak lortu dira. Badira, ordea, eskaintzerik izan ez diren bi ziklo: informatika alorreko "Web aplikazioen garapena" deritzon zikloa eta espezializazio alorreko "Fabrikazio Aditiboko ikastaroa". Bai mantentzen direla beste bi aukerak: "Web aplikazioen garapena" informatikan eta "Trenbideetako mantentze aurreratua" espezializazio ikastaroei dagokionez.

Batxilergoan, azken urte hauetako emaitza positiboak mantendu dira, hiru lerroak egonkorturik daudelarik (guztira ia 200 ikasle batxilergoan).

Guzti hau kontutan izanik, aipatzekoa da azken urteetako matrikulazio kopuru haundienan gabiltzala. Ohiko kaptazio kanpainak arrakastatsuak izan direlarik.

Bezeroen arloan, SES edo END alorreko eskaintzaren merkaturatzeari loturik, ez dira ekintza berezirik gauzatu. SES zerbitzuen katalogoa eguneratzeko helburua ere ez da bete. Aurten ere, bigarren aldiz, Irungo FICOBAn ospatzen den UNIRE ferian hartu da parte, bertan stand propioa ipiniz. Ekimen honek, Goierri Eskolak alor honetan duen ezagutza ezagutaraztea du helburu. Bertan presentzia izatea positibotzat hartzen da.

Aldiz, Fabrikazio Aditiboa-ri (FA) eta Nazioarteko Soldadura Ingeniari (IWE) eskaintzari loturiko merkaturatzea plangintzaren arabera gauzatu da. Emaitzak desberdinak lortu dira. Fabrikazio Aditiboan ez da taldea sortzerik lortu, baina bai IWEari loturikoa.

Bestalde, langile eta langabetuen formazioaren alorrean, ohikoak diren ekintzak gauzatu dira, eskaintza merkaturatu eta bezeroen parte-hartzea bultzatu asmoz. Aurreko urteetan bezala, zailtasun haundiak izan direlarik aurreikusitako ikastaroak aurrera eramateko (berezi langileei bideratutako ikastaroen kasuan). Informazio gehiago aurkitu

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	23

daiteke txosten honen 47. orrialdean ([Laneratzeko eta Etengabeko Hezkuntza prozesuari loturiko informazioa](#)).

Prozesuen arloan, Goierri Valley eta Goieki erakundeetako lan-talde desberdinetan parte hartu da, bailarako enpresa eta elkarte desberdinen beharrak identifikatu eta ase asmoz, elkarlan ekintzak gauzatzeko. Bailarako udalekin, aldiz, ez da bilerarik gauzatu.

Bestalde, administrazio eta zerbitzuetako alorraren digitalizazioa garatzeko pausoak landu dira, matrikulazio prozesuaren hainbat ildo digitalizatuz.

4.2.3. Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.

1. KAPTAZIO KANPAINA

Azken urte hauetan bezala, aurten ere ate ireki presentzialak burutu dira, kaptazio kanpainaren barruan. Bata Lanbide Heziketakoa (2025-ko Apirilaren 5a) eta bestea Batxilergokoa (2025-ko Martxoaren 15a).

Izen-emateari dagokionez, aurten 550 izan dira, iazko datuekin alderatu ezkerre igoera nabarmena izan delarik (iazko 394 baino %39,5-ko igoera). Jarraian ikus daitezke izen-emateen datuak, etapa desberdinetan.

Ate Irekiak: IZEN-EMATEA					
Izen-emateak:	Batxi:	OLH:	EM:	GM:	ESPE:
550	172	31	176	160	2

Parte-hartzeari dagokionez, aurtengo 2024/25 ikasturtean 410 parte hartzaile izan dira ate irekietan. Iazko datuekin alderatuz gero (246), %66,6-ko igoera izan delarik. Aurtengo datu hau kontutan izanik, izena eman dutenen %74,5-k hartu du parte. Beraz, parte hartze haundia izan da (iazko %64tik gora).

Emaitzak ikusirik, aldaketa esanguratsuak izan dira bai Lanbide Heziketan, bai Batxilergoan. Lanbide Heziketan iazko 198tik aurtengo 267-ra pasa gara, bereziki Erdi Mailako eskaintzan izan delarik igoerarik nabarmenena. Aldiz, Batxilergoan, iazko 48tik aurtengo 143-ra. Ikus daitekeenez, batxilergoan izan da igoerarik haundiena, partaidetza hirukoiztu egin delarik.

Jarraian zehazten dira, ikasketa maila bakoitzean, aurten izandako parte hartzea:

- ✓ Batxilergoan: 143 ikasle (iaz 48) ==> + %198
- ✓ Oinarrizko LH: 25 ikasle (iaz 18)
- ✓ Erdi Maila LH: 136 ikasle (iaz 77) ==> + %76,6
- ✓ Goi Maila LH: 102 ikasle (iaz 97)

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	<i>Orri zenbakia</i>
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	24

Kontuan eduki behar da, kopuru hauek ikasle potentzialenak direla. Bertan ez daude zenbaturik guraso edo laguntzaile modura etorritakoak. Guztira, 550 pertsonatik gora gerturatu ziren ate ireki saio presentzialetara (iazko 440 baino %25 gehiago).

Iazko emaitza positiboak nabarmen areagotu egin direla, ondorioztatu daiteke.

2. Kaptazio kanpainaren barruan, ate irekiaz gain, ikastetxeetan hitzaldiak eskaini dira. Ikastetxeak ohizkoak izan dira (Etxarriko Andra Mari, Beasaingo La Salle, Lazkao San Benito...etabar). Aipatzekoa da, atal honetan, Altsasuko Iñigo Aritza-ko ikastolak ateak itxi dizkigula. Hemendik aurrera, ez digute bertara joaten utziko hitzaldiak ematera. Beraien esanetan, orientazio saioen berrantolaketa bat burutu ostean hartu dute erabakia. Beste modu batera jokatzeko asmoa azaldu dute. Eta, gure aldetik, beraiekiko izan dugun arreta gutxitu dela aipatu dute. Orientazio saioen antolaketari dagokionez, Sakanan bertan beste ikastetxe batzuekin bisitak eta hitzaldiak antolatu izan dituztela jakin izan dugu. Beraz, erabakiaren atzean, Sakana-ko bailaran jasaten duten "presioa" egon daitekeela ondorioztatu da.
3. Ate ireki zein kaptazio-hitzaldi hauek baliatuz, guztira ikasle kopuru hauengana iritsi gara: batxilergoan 209 ikasle, Hasierako LHan 58 ikasle, Erdi mailako 232 ikasle, Goi mailako 125 ikasle eta espezializazio ikastaroko 4 ikasleengana. Hitzaldi horietan ere, hainbat familietara iritsi gara: guztira, 464 guraso. Orotara, 1092 pertsonengana, iazko datuaren antzekoa (1095 pax).
4. Marketin alorrean, sare sozialetan Goierri Eskolaren presentzia mantendu da, aurtengoa izan delarik ADAKI enpresaren aholkularitzarik gabeko lehen ikasturtea. Horrek ez du inolako eragin negatiborik izan.
5. Matrikulazio prozesuaren baitan, aurre-matrikula datuei begiratu bat eman ezker, iazko datuak egonkortu dira. Lanbide heziketan, 2025/26-rako 522 aurrematrikula gauzatu dira, iazko 459-ko emaitzarekin alderatu ezker, %13,7-ko igoera izan delarik. Batxilergoan ere, gorakada izan da, iazko 118-tik aurtengo 148-ra igoaz (%25-ko igoera). Nabarmenezkoa da, duela bi urtetara hona (2023/24), batxilergoko aurrematrikulak 95tik 148ra igo dela; %55-ko igoera bi ikasturtetan. Orohar, oso emaitza positiboak aurrematrikulazioan.
6. Matrikulazioaren emaitzak ere oso positiboak izan direla aipatu daiteke. Zenbaki orokorrak kontuan hartu ezker, denera 478 ikasle berri matrikulatu direlarik Batxilergoa eta Lanbide Heziketako lehen kurtsoan. Iazko datuarekin alderatuz gero (451 ikasle), %5,9-ko igoera delarik. Batxilergoan 105 matrikula izan ditugu, iazko datuekin alderatuta (99 ikasle), %6-ko igoera delarik. Matrikulatuta izan ditzakegun gehieneko kopurura iritsi gara (105 ikasle ditugu itunduta). Lanbide heziketari dagokionez, aurtan ere zenbakiak gora egin dute. Iazko 352-tik aurtengo 377-ra igaro garelarik, %7-ko igoera suposatzen duelarik.
7. Orohar, itunduta ditugun gehiengo ikasle kopurutik oso hurbil gaude. Talde guztiak osorik beteta ditugularik. Badira, ordea, guztiz bete gabe gelditzen diren zikloak. Horien artean, informatika alorreko "Plataforma anitzeko aplikazioen garapena" deritzon informatika alorreko zikloa (Goi Mailakoa) eta "Pertsonen Arreta" zikloa (Erdi Mailakoa). Horiek lirateke indartu beharrekoak.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	25

8. Azkenik, aurrematrikula datuak ikusirik, gure eskaintzan aldaketak egiteko aukerak agertzen dira, datorren ikasturtean hausnartu beharrekoak. Horien artean, argiena, "Mekatronika" zikloaren bikoiztea izan liteke. Eskaera asko dituen zikloa izanik, beste zikloak elikatzeaz gain, kanpoko ikastetxeetara joaten dira ikasle potentzial asko.
9. Hezkuntza ez arautuan, langileentzako eta langabetuentzako ikastaroei dagokienez, honako aipamenak egin ditzakegu:
 - 8.1 Langabetuei emandako ikastorduak 1760 izan dira, aurreko ikasturtearekin alderatuta (2210), beherakada nabarmena izan delarik.
 - 8.2 Neurrira eskainitako ikastorduak 313 izan dira, iazko datuarekin alderatuta (531) beherakada nabarmena izan delarik.

Datu hauen inguruko informazio gehiago aurki daiteke txosten honen [4.6.3 atalean](#). Bertan agertzen den bezala, datuak kezkarriak dira, azken urteetako beherakada nabarmena ikusirik.

4.2.4. Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.

Aurreko ikasturteetan bezala, 2024/25 ikasturtean ez da ezadostasunik ireki prozesu honi dagokionean.

4.2.5. Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.

Prozesuaren kudeaketak eta haren memoriak adierazle bakoitzean izandako emaitzak jaso ditu. Haien artean, honakoak dira aipagarrienak, lehenengo mailetan beti ere:

- Hasierako Hezkuntzari dagokionez:
 - Batxilergoko lehenengo mailako aurrematrikula- eta matrikula-kopuruek gorantz egin dute aurten ere. Azken hiru urte hauetan, 55 matrikula izatetik aurtengo 105 izatera pasa garelarik. Batxilergoko hirugarren lerroa egonkortuta dugu gaur egun.
 - Erdi maila: matrikulazio kopuru egonkortua (aurten 95 vs iazko 93 matrikulatu). Lau zikloetatik bakar batean daude matrikulazio kopuru baxuak (pertsonek arretakoan). Ziklo honetan saiakerak egin badira ere, ez da matrikulazio kopurua handitzerik lortu. Zaindu beharrekoa.
 - Goi maila: Aurten 193 ikasle matrikulatu dira. Orohar talde guztiak erabat beteta egon arren, badira zaindu beharreko zikloak: Informatika alorrekoak zein espezializazio ikastaroak:
 - Informatikan, Plataforma Anitzeko zikloan matrikulazio ona lortu da baina web orriko eskaintza ez da gauzatuko 25/26 ikasturtean.
 - Espezializazio ikastaroetan, aurten eskaini den Trenbideetako Mantenua bai gauzatuko dela datorren 25/26 ikasturtean, baina Fabrikazio Aditiboa eskaintzeko aukerarik izango ote dugun ez dago argi (Hezkuntzaren baimenaren zai).

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	26

4.2.6. Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.

Hezkuntza ez arautuan, azken ikasturteetan izandako bilakaera berdina izan da. Sarrera baldintzak eta orduko/ikasleko ordaintzen dutena beherantz doa deialditik deialdira (nahiz eta aurtengoan igoera txiki bat izan den, KPI-ren azpitik dagoena). Azken ikasturte hauetan somatu zaion etorkizun beltza konfirmatzen ari da.

Datu Pertsonalen babesari buruz, DATAPREV enpresarekin jarraitzen dugu elkarlanean. Ikasturte honetan zehar zenbait baimen eskakizun berrikusi direlarik eta pribatutasun politika ere berrikusi da.

4.2.7. Ikuskapenen emaitzak.

2025-ko Martxoaren 24-an burututako barne ikuskapenean zein AENOR-ek 2025-ko Maiatzaren 5-6an eginiko kanpo ikuskapenean, ez zen ezadostasunik izan.

4.2.8. Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.

Batxilergoko lehen mailan lorturiko matrikulazio emaitzak oso positiboak izan dira. Bada, ordea, eskaintzen diren bi aukeren arteko desoreka bat, Batxilergo Zientifikoaren aldeko apustua askoz haundiagoa delarik Batxilergo Orokorren aldekoa baino. Beraz, datorren ikasturtera begira, Batxilergo Orokorren hautua indartu beharko da, taldearen mantentzea bermatzeko.

Bestalde, lanbide heziketan, badira matrikulazio kopuruaren bilakaerari hadi egon beharreko eskaintzak. Hala nola espezializazio zikloak, metal eraikuntzako eta galdaragintza zikloak, eta pertsonen arretako zikloa. Ziklo hauen matrikulazio bilakaerari adi egoteaz gain, informatika alorreko eskaintzak ere indartu beharko dira, talde horietan ikasle kopuruak mantentzeko ekintzak burutu beharko direlarik.

Espezializazio ikastaroen kasuan, 2025/26 ikasturtean ere, Trenbideetako Mantenuaren ikastaroa eskainiko da, matrikulazioan gorakada nabarmena izanik (iazko 7 ikasletik aurtengo 15 pasa bait gara). Eskaintza hau mantentzeko ekintzak burutu beharko dira, bereziki marketing kanpainaren barruan.

Alderdi negatiboa, aurten Fabrikazio Aditiboko eskaintza luzatzeko aukerarik ez dugula izan (Hezkuntza Saitetik ez digute horretarako baimenik eman).

4.2.9. Kanpoko hornitzaileen emaitzak.

Prozesu honen barnean, kanpoko hornitzaile bakarra dugu, AZK. Hornitzaile horrekin, ildo nagusi hau jorratzen da:


- Ingeniaritza alorreko marketin kanpainari loturikoa: irudia, prentsan iragarkiak, posterrak...

Iaz arte, komunikazio gabinete modura, aholkularitza jasotzen zen Adaki enpresaren bitartez. Aurten, ordea, ez da beraiekin inolako lanketarik egin. Goierri Eskolan bertan barneratu dira alor horretako ekintzak (kanpo komunikazioa prentsan, web orria...etab.).

4.3. Talentuaren Kudeaketa

4.3.1. Bezeroen satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.

Pertsonalari egindako inkestan satisfazio indize orokorra 4,26 / 5 izan da iaz bezala, honako banaketarekin:



Ikastetxean lan egiteagatik satisfazio maila 4,4 / 5 izan zen.

Hobekuntza arlo nagusiak honako hauek dira:


Arloa	Batezbestekoa
Nire betebeharrak burutzeko dudan denbora egokia da	3,34
Eskolako Internet, korreo konexioak egokiak dira.	3,42
Lan ordutegiak asetzen nau	3,86
Mantenimendu informatikoak asetzen nau.	3,88
Nire jardunari buruzko iruzkin eraikitzaileak eta orientaziorik jasotzen dut	3,92

Hobekien baloratutako gaiak, berriz, honako hauek dira:

Arloa	Batezbestekoa
Fotokopia zerbitzuak asetzen nau.	4,75
Idazkaritzak ematen didan zerbitzuak asetzen nau.	4,58
Eroso sentitzen naiz nire arduradunari nire iritzia ematen	4,57
Nire kudeaketa unitatean behar dudana laguntza jasotzen dut	4,55
Nire eginkizunen jabe eta arduradun sentitzen naiz.	4,54

4.3.2. Helburuen betetze maila

Prozesu honetako helburu gehienak, pertsonalaren satisfazioarekin erlazionatuta daude. Honekiko geneuzkan helburuak lortu izan dira. Aurreko urtekoarekiko, honela aldatu dira:



Prozesuaren helburuekiko, Komitearekin elkarlanean jarraitzen dugu, ikasturtean zehar bilerak maiz egin ditugu behar diren gaitan adostasunera iritsiz.

Ikasturte honen hasieran, Berdintasun Planaren berritzearekin bukatu genuen, Berdintasun Plana borobilduz. Horrekin batera, hainbat protokolo burutu genituen, langilegoari dagokionez:

- Berdintasun Plana 2024.
- Jazarpen protokolo orokorra (bertan, kolektibo desberdinetako protokoloekin bateratutako bat diseinatu genuen: Jazarpen orokorra, LGTBQ+ eta Trans kolektiboekikoa).

Era berean, intranetean, pertsona guztiek protokolo hauek eta aurretik geneuzkanak erraz aurkitzeko, "Planak eta Protokoloak" deritzon gunek bat ireki genuen, eta bertan dokumentazio guztia bildu:

- Goierri Autobabes Plana 2024
- Jazarpen protokolo orokorra.
- Berdintasun Plana 2024.
- Salaketaren kanala.
- Deskonexio digitala eta telelana.
- SOI – dekalogoak.

Plan hauen ondorioz, pertsonen hautaketan, formazioan eta informazioan hainbat ekintza burutu dira urteko planari jarraituz.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	29

Pertsonen kudeaketarako modu integral batean lana egiteko, "Grupo Castilla"-k eskaintzen duen aplikaziora migratzen joan gara. Aurretik, nominen kudeaketarako haien aplikazioa erabiltzen genuen. Kurtsoan zehar, konpetentzien ebaluaketa egiteko duen aplikazioa adaptatzen joan gara, formazioaren kudeaketarako duena ere, eta baita jardueraren erregistroa egiteko antolaketa ere. 2025/26 ikasturtean guzti hauek indarrean izatea da helburua.

Ikasturte honetan, aurrekoan baino baja gutxiago izan badugu ere, legeen aldaketek eraginda egituraren txertatu diren Aitatasun/amatasun bajak luzatu dira eta bestelakoak ere kudeatzeko gorabeherak izan ditugu. Hala ere, ordezkatu dira denboran guztiak eta lortu da aktibitatea mantentzea.

Formazio-plana aurkezteko eta lehentasunen arabera erabakiak hartzeko prozesua mantentzen da eta Zuzendaritza Kontseiluan berriro ere azaldu eta aplikatu da. Inbertsioekin egiten dugun moduan, Prozesu eta KUetako eskaera guztiak jasotzen dira formulario baten bitartez eta Zuzendaritza Kontseiluan lehentasunen arabera urteko plana onartu da.

Lanerako eta Etengabeko Hezkuntzan, espezialista sarea izateko bilaketarekin jarraitzen dugu. Egia da lortzen ditugula momentuko irakasleak baina sarea zabaltzen eta egonkortzen jarraitu beharrean gaude, SES eta Elektrizitateko arloetan bereziki.


4.3.3. Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna

Nahiz eta Grupo Castellako aplikaziora migratzen joan, 2024/25 ikasturtean oraindik Eragiketen Kontrola erabili dugu formazio planak kudeatzeko. Gaitasunen zorroa definitzeko, gaitasunen minimoak ezartzeko posibilitatea eta autoebaluazioa egiteko gunea du. Dena den, Kudeaketa Unitateek erritmo desberdina daramate gai honen inguruan; batzuk konpetentzien karakterizazioa bukaturik duten bitartean, beste batzuk horretan lanean ari dira. Formazio planek oraindik ez diete erantzuten jardueren ebaluaketaren ondorioz aurkitzen diren hutsuneei erabat.

Pertsonalari dagokionez, ikasturteko bajak hauek izan dira;

Gaixotasuna		Amatasuna/Aitatasuna		Lan – istripuaz		Istripu ez-laborala	
22	1293 egun	4	378 egun	1	22 egun	0	0 egun

Lan-istripuen edo lan-gaixotasunen bilakaera:



	2021	2022	2023	2024	2025	
Langileak	85	79	80	88	87	
Kotizatutako egunak	30.951	28.769	29.346	32.096	21.086	
Baja-egunak	218	154	8	0	22	
ABEren indizea	0,70	0,54	0,03	0,00	0,10	
Hasitako bajak	17	9	1	0	1	
Amaitutako bajen	12,82	17,11	8,00	-	22,00	
Batez besteko intzidentzia	20,00	11,39	1,25	0,00	1,15	
Soldata-kostuak	9.310,66 €	6.269,94 €	316,80 €	0,00 €	517,73 €	
Batez besteko kostua Bajaren	547,69 €	696,66 €	316,80 €	-	517,73 €	
Bajako egunaren batez besteko kostua	42,71 €	40,71 €	39,60 €	-	23,53 €	

*Urte osoetako informazioa agertzen da Azken epea honi kargatua 31-08-2025

4.3.4. Intzidentzien ikerketa; ez adostasunak eta ekintza zuzentzaileak

2018ko apirilaren 13ko Barne Ikuskapenean honako ezadostasuna ireki egin zen:

EZA kodea: NC-PE-BI-18-2018ko barne ikuskapena-28. Hainbat kasutan jardueraren ebaluazioa ez dela planifikatu ikusi da.

Ekintza zuzentzaileak:

1. Zuzendaritza Kontseiluan, azaldu kudeaketa unitateko arduradunei beraien KU-ko postu bakoitzeko gaitasun espezifikoak Eragiketen kontrola erremintan nola sartzen diren.
2. Eskolako pertsonalak norberak bere jarduerari buruzko autoebaluaketa burutzea, gaitasun orokor eta espezifikoak kontutan hartuz eta bakoitzean duen maila adieraziz, GAP-a aztertzeke.
3. Kudeaketa Unitate bakoitzeko Arduradunak, bere taldeko pertsonen jardueraren ebaluazioa burutzea, Eragiketen kontrola erremintako informazioa kontutan hartuz.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	31

4. Zuzendaritza kontseiluan, Kudeaketa Unitateko arduradunei, berain KU-ko lan postuen gaitasun espezifikoak gaurkotzeko eskatu.
5. Formazio planak ebaluatzeko eta horren ondorioz eraginkortasuna baloratzeko "Eragiketen Kontrola " erreminta gaurkotu
6. KU ala Prozesuetako arduradun guztiei adierazi Formazio ekintzen ebaluazioa egiteko prozedura zein den, eragiketen kontrola erremintan nola egiten den adieraziz.
7. KUko arduradunei, beraien KUko konpetentzien mapa gaurkotzen lagundu.
8. Lidergoari buruzko formazioa jaso Zuzendaritza kontseiluan, honek suposatzen dituen hainbat jarduera (ebaluaketa) bereziki azpimarratuz. Guztion arteko elkarrekintzak KUetan ematen diren diferentziak murriztea espero da.

Ikusten den moduan, hainbat ekintza garatu da. Momentu honetan azken ekintza da burutzen ari dena. Beste guztiak burutu daude. Hala ere, oraindik ez dugu lortu jardueraren ebaluaketaren ariketa onargarri bat. Eragiketen kontrola ordezkatzeko duen Grupo Castellako aplikazio berria martxan jartzerakoan atal honetan arreta jarri beharko dugu bultzada bat emateko. Bitartean, erreminta berria "kargatzeko" gaurkotutako konpetentzien mapa biltzen joan gara. Hala ere, KU batzuk oraindik gaurkotu gabe dute.

4.3.5. Segimendu eta neurketen emaitzak. Prebentzio zerbitzuak emandako jarraibideen betetze maila barne.

Adierazleen artean, helburua hobekien lortu dutenak hauek izan dira:

"TK SAT Satisfazioa Informazioa & Komunikazioa" : 4,38 / 5

"TK SAT Satisfazioa Antolakutza & Kudeaketa": 4,32 / 5


"TK SAT Satisfazioa Zerbitzuak": 4,31 / 5

"TK FRE Egindako osasun-azterketa kopura / Langile kopurua" : %96,5

Bestetik, Iritsi dira "Quirónprevención"-ek bidalitako memoriak; batetik "Vigilancia de la salud" eta baita "Especialidades técnicas"-ekoa ere. Era berean, 2024/2025 ikasturtea planifikatu zen.

Enpresan Prebentziozko Integrazioaren Balorazioaren emaitza: aurreko puntuan definitutako jarduerak ebaluatu ondoren, eta Balorazio Orokorreko taulan ezarritako balorazio-irizpidearen arabera, Enpresan Prebentziozko Integrazioa Zuzentzat jotzen da.

OSASUNAREN ZAINTZAREN EMAITZAK



Txosten hau 2024ko irailaren 1etik 2025ko abuztuaren 31ra bitartean egindako osasun-azterketetan jasotako datuetan oinarritzen da.

Egindako osasun-azterketen kopurua 85 izan da (denak gai), eta 3 pertsonak sinatu dute "azterketa medikoa pasatzeari uko egitea"

EMAITZAK:

Resumen de las conclusiones obtenidas en el análisis de los hallazgos de la exploración médica

	Global	Puesto	Centro		Global	Puesto	Centro
HALLAZGOS CERVICALES	✓	✓	✓	DISMINUCIÓN AGUDEZA VISUAL	✗	✗	✗
HALLAZGOS DORSALES	✓	✓	✓	IRRITACIÓN CONJUNTIVAL	✓	✓	✓
HALLAZGOS LUMBARES	✓	✓	✓	ALTERACIONES DERMATOLÓGICAS	✓	✓	✓
HALLAZGOS MIEMBROS SUPERIORES	✓	✓	✓	ALTERACIONES ESPIROMETRÍA	!	✗	!
INSUFICIENCIA VENOSA	Muestra Insuficiente	Muestra Insuficiente	Muestra Insuficiente	ALTERACIONES AUDIOMETRÍA	✗	✗	✗
				ALTERACIONES AUDIOMETRÍA EXPUESTOS RUIDO	✗	✗	✗

Resumen de las conclusiones obtenidas en relación a los hábitos referidos por el personal laboral durante el examen de salud

	Global	Mujeres	Hombres		Global	Mujeres	Hombres
CONSUMO DE TABACO	✓	✓	✓	TRASTORNOS DEL SUEÑO	✓	!	✓
SEDENTARISMO/ ACTIVIDAD FÍSICA OCASIONAL	✓	✓	✓	ALIMENTACIÓN DESEQUILIBRADA	✓	✓	✓
CONSUMO DE ALCOHOL	✗	✗	✗				

Resumen de las conclusiones obtenidas en el análisis de las mediciones clínicas realizadas durante la exploración médica o derivadas del análisis clínico

	Global	Mujeres	Hombres		Global	Mujeres	Hombres
TENSIÓN ARTERIAL ELEVADA	✗	✓	✗	INDICE CINTURA-TALLA ALTERADO	✓	✓	✓
SOBREPESO/OBESIDAD	✗	✓	✗	SCORE MEDIO	!	✓	!
GLUCOSA ELEVADA	✓	✓	✓	SCORE ALTO Y MUY ALTO	✓	✓	✓
COLESTEROL ELEVADO	✗	✗	✗	RESISTENCIA INSULINA ALTERADO	✓	✓	✓
TRIGLICÉRIDOS ELEVADOS	✓	✓	✓	FLI GRAN PROBABILIDAD	✓	✓	✓

4.3.6. Lege betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.

Kokapen estrategiko prozesuan, legediaren aldaketak gordetzen eta banatzen ditugu erreminta desberdinak erabiliz (Legoan, EHAA, Intraneteko legediari buruzko zerrenda...). Hauetako batzuk Pertsonen kudeaketari dagozkie eta horrek ekarri du intraneteen publikatzea Jazarpenaren aurkako protokolo orokorra (LGTBQ+ eta trans legediei ere gaurkotuta) eta deskonexio digitalaren protokoloa.

4.3.7. Ikuskapenen emaitzak

Laugarren puntuan adierazi den moduan, barne ikuskapen horren ekintzak planifikatu dira, gehienak bete egin dira eta irekita dagoenarekin helburua lortu nahian gabiltza.

4.3.8. Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna

Bi izan ziren martxan jarritako horrelako ekintzak eta ondorengoak dira haien eraginkortasunaren balorazioak:

Aurreko ekitaldiko ekintza	Eraginkortasuna	Ekintzaren ebaluazioa	Datorren ekitaldirako gomendioa
Pertsonala aurkitzeko zailtasunak izan ditzakegu, lan eskaintzak kudeaketa indartu. Eskaintza sare sozialetatik zabaldu.	Altua	Oraingoz behar ditugun profilak lortzen ari gara, baina ez dago aukera gehiegirik.	Mantendu
Pertsonala aurkitzeko zailtasunak izan ditzakegu, lan eskaintzak kudeaketa indartu. Kurrikulum berriak lortzeko bideak ireki. Kontsultorak, Hetel, Sareak, Infojobs...	Ertaina	Kurrikulum berriak lortzeko bideak ireki ditugu. Hala ere zaila egin zaigu postu guztiak betetzea	Mantendu

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	34

4.3.9. Kanpo hornitzaileen emaitzak

Quirón Prevención-i buruz egindako balorazioa egokia izan da, kontratua bete duelarik eta gure gogobetetasuna onargarria delarik.

Pertsonalaren satisfazio inkestan, "39.- Eskolan egindako lan arrisku eta prebentzioaren kudeaketa bikaina da" itema neurtzen da eta item honen emaitza 24/25 ikasturteko inkestetan 4,32-koa izan da. Aipatzekoa da kudeaketa horren zati handi bat Quirón Prevención-en bitartez egiten dela, eta ondorioz, beraiekiko ebaluazioa positiboa dela ondorioztatu daiteke, nahiz eta iazkoarekin konparatuta zertxobait jaitsi den.

4.4. Jasangarritasunaren Kudeaketa

4.4.1. Bezeroen satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne

Prozesuari lotutako satisfazio-adierazleak berrikustean, oro har emaitza positiboak lortu dira. Inkesten bidez bildutako 14 adierazleetatik gehienek helburua bete dute edo gertu geratu dira. Emaitza nabarmenenak honakoak izan dira:

- Eskola barruko garbitasuna: **4,08** (helburua 4)
- Komunen garbitasuna eta hornidura: **4,09** (helburua 4)
- Eskola inguruko garbitasuna (fatxadak, patioak, lorategiak): **4,20** (helburua 4)
- Baliabideen egokitasuna (gelak, makinak, altzariak...): **4,02** (helburua 4)
- Mantenu orokorrak: **4,42** (helburua 4)

Bestalde, **informatika arloan** emaitzak hobekuntza bidean dauden arren, oraindik helburuaren azpitik daude:

- Zerbitzu informatikoarekiko satisfazioa: **3,70** (iaz 3,59koa zen)
- Mantenimendu informatikoaren balorazioa: **3,88** (iaz 2,8koa zen, hobekuntza handia)

Ikusten denez, inbertsio handiak egin arren oraindik ez da guztiz lortu bezeroen asebetetzea arlo informatikoan. Hala ere, lehen aldiz joera argi positiboa sumatu da.

Pertsonalaren eta ikasleen balorazioak mantendu egin dira urteetan zehar, oro har asebetetze maila altuak mantenduz.

Kexei eta erreklamazioei dagokienez, kudeaketa arina eta erantzun egokiak eman dira. Aurten ere ikasle batzuek baja ofiziala bulegoan ez sinatzeagatik kobraketa erreklamazioak aurkeztu dituzte, baina egoera argitu eta ebatzi egin da kasu guztietan.

Esparru ekonomikoari dagokionez, kanpo-bezeroaren satisfazioa ez da zuzenean neurtzen (inkestetan galdera espezifikoaren bidez), baizik eta zeharka neurtzen da. Hala ere,

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	35

BEK prozesuaren adierazle ekonomikoek erakusten dute erakundea posizio sendoan dagoela:

- Emaizta ekonomikoa: **oso positiboa** izan da (aurreko urteko bilakaera aldaketa sendotuz)
- Inbertsioak: **351.689 €** (horietatik 150.000 € Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzekin)
- Diru-sarrerak: **8.661.914 €** (helburua 7.812.176 € zen)
- Kaudimen eta likidezia-ratioetan igoera izan da (3,35).

Laburbilduz, **jasangarritasun prozesuaren baitan** (BEK + BAK), emaitza nagusiak hauek dira:

- **Barne bezeroaren satisfazioa** maila altuan mantentzen da (4tik gorako balioak garbitasuna, baliabideak eta mantenu orokorrean).
- **Informatika arloa** da hobekuntza esparru nagusia, nahiz eta azken urtean aurrerapen handia izan.
- **Ekonomiaren kudeaketan**, emaitza positiboak lortu dira eta horrek jasangarritasuna indartu du.

Onorioz, **ekitaldi berrirako helburuak mantendu** egingo dira, baina arreta berezia jarriko da:

- Informatika zerbitzuaren hobekuntzan, barne eta kanpo bezeroaren asebetetze-maila handitzeko.
- Baliabide ekonomiko eta aktiboen erabileran gardentasuna eta trazabilitatea indartzen jarraitzeko.

4.4.2. Helburuen betetze-maila.

Lehengo BAK prozesuan ezarritako 7 helburu nagusien betetze-maila desberdina izan da, baina oro har aurrerapen nabarmenak lortu dira.

Lehen helburua, **Goierri Eskolako aktibitate ekonomiko jasangarria izatea ziurtatzea**, maila onean bete da. Gastu eta inbertsioen kontrola indartu da Business Central eta Power BI bidez, eta horrek gardentasun handiagoa eman dio baliabideen erabilerari. Gainera, auto-hornidura energetikoan urrats handiak egin dira: 3. eraikinean eguzki panelak instalatu eta martxan jarri dira, eta honek energia kontsumo propioa handituko du epe ertainera. Etorkizunera begira, energiaren monitorizazioa eta domotika sistemak gehitzea aurreikusten da, jasangarritasun ekonomiko eta energetikoa sendotzeko.

Bigarren helburua, **ikasleen sentsibilizazioa eta GJHen integrazioa**, aurrera eramaten ari da. Ikasleek GJHen inguruko jardunaldi eta erronketan parte hartu dute, eta eskola erreferente gisa kokatzen joateko bidean dago.

Hirugarren helburua, **pertsonen ongizatea eta arrisku psikosozialen prebentzioa**, jarraipen sistematiko baten bidez bideratu da. Laneko arriskuen ebaluazioak, zarata eta kutsatzaileen neurketak eta prebentzio-formazioak burutu dira.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	36

Istripu-kopurua txikia izan den arren (langile baten istripua eta ikasleen 13 istripu), prebentzio-neurriak indartzen jarraituko da.

Digitalizazioari dagokionez (laugarren helburua), aurrerapausoak eman dira Business Central eta ODOOren erabileran, mantenuaren eta eragiketen kontrola hobetzeko. Citrix sistemaren murrizketa eta Grupo Castilla softwarearen ezarpena ere nabarmendu behar dira. Hala ere, "control operacional" sistemaren ordezkapena oraindik osatu gabe dago, eta hurrengo ikasturteetarako helburu nagusi izaten jarraitzen du.

Beste helburu batzuetan ere aurrerapenak egon dira: ziklo berrietarako guneak egokitu dira (1116 eta 1117 gelak), eta *bak infor* zerbitzuaren erabiltzaileen satisfazioa hobetu da, nahiz eta oraindik KU batzuetan maila apalagoa mantentzen den. **Segurtasunari** eta **ingurumenari** lotutako helburuetan ere lan egin da: prebentzio-zerbitzuak sendotu dira, zarata eta kutsatzaile kimikoen neurketak egin dira, eta 3. eraikinaren energia-ziurtagiria berritu da. Gainera, mugikortasun jasangarriaren inguruko galdetegia egin eta ekintza-planaren lehen urratsak definitu dira.

Arlo ekonomikoari dagokionean, helburuen betetze-maila orokorrean positiboa izan da. Urteko emaitza ekonomikoa oso positiboa izan da, aurreko urteko bilakaera aldaketa sakonduz. Inbertsioetan 351.689€-ra iritsi da, aurreikusitako helburua gaindituz, eta horietatik zati handi bat Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzekin finantzatu da. Enpresen eta udalen ekarpenetan egokitzapenak egin dira, kooperatiben ekarpenak berreskuratzeko bidean.

Bestalde, formazioari dagokionez, aurrekontua gainditu da (20.000 €-tik gora), eta instalazio eta zerbitzuen erabileratik 50.000 €-tik gorako sarrerak lortu dira. Dokumentu kudeaketan, Navision berrira migratu ostean DOCUMENT CAPTURE sistemaren lehen fasea ezarri da, hornitzaileen faktura asko erregistratu direlarik. Hurrengo ekitaldiaren helburua erregistratzen diren fakturen % handitzea da. Likidezia eta kaudimen ratioek igoera izan dute (3,35), erakundearen jasangarritasuna bermatuz.

Laburbilduz, helburu nagusien gehiengoa bete da eta hainbat esparrutan aurrerapen nabarmenak egin dira. Zailtasunak nagusiki informatika eta dokumentazio kudeaketan antzeman dira, baina joera orokorra positiboa da, eta datorren ikasturterako helburuetan jarraipen zorrotza eta hobekuntza ekintzak aurreikusi dira.

4.4.3. Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.

Jasangarritasun kudeaketa prozesuak jarduera-eremu anitzak hartzen ditu bere baitan: mantenu informatiko eta orokorra, segurtasun eta osasuna, ingurumenaren kudeaketa, alderdi ekonomikoak eta finantza-kudeaketa, instalazioen egokitzapena eta digitalizazioari lotutako ekintzak.

Prozesua normaltasunez gauzatu da, eta jarduera bereziak aurreko puntuan aipatutako helburuen lorpenera bideratu dira.

Segurtasuna eta osasuna: prebentzio-plangintzan aurreikusitako ekintzak gauzatu dira, langileen arriskuen ebaluazioak, zarata neurketak eta kutsatzaileen analisiak eginez. Azterketa medikoetan parte-hartze zabala izan da, eta prebentzio prozedura berriak aplikatu dira legionellaren eta biltegiko jardueren kontrolerako. Autobabes-planaren eguneraketa ere egin da.

Ingurumenaren kudeaketa: karbono-aztarna kalkulatu da eta energia-ziurtagiriak berritu dira. Energia berriztagarrien erabileran aurrerapauso garrantzitsuak eman dira: 3.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	37

eraikinean eguzki panelak ezarri dira eta domotika sistemak ezartzeko lehen urratsak eman dira energiaren monitorizazioa eta efizientzia hobetzeko. Gainera, mugikortasun jasangarriaren inguruko galdetegia egin da eta ekintza-plan baten diseinua martxan jarri da.

Mantenu arloa eta digitalizazioa: baliabideen kudeaketan tresna digital berriak ezartzen ari dira. Business Central eta ODOO plataformen aukerak aztertu dira mantenu eta eragiketen kudeaketa hobetzeko, eta Grupo Castilla softwarearen ezarpena martxan dago pertsonen kudeaketari eta segurtasunari lotuta. Informatika zerbitzuaren erabileran hobekuntza nabarmena lortu da, nahiz eta oraindik KU batzuetan gabeziak atzeman diren.

Instalazioen kudeaketa: ziklo berrietarako guneak egokitu dira eta hainbat gela birmoldatzen ari dira, baliabide fisikoak ikastetxearen beharrei egokitzeko. Inbertsio esanguratsuak egin dira instalazioen hobekuntzan, horrek zerbitzuen kalitatea bermatuz.

Arlo ekonomikoa: urteko jarduera ekonomikoa normaltasunez gauzatu da, gastu eta sarreraren jarraipena kontu-eskema egokitu eta kontrol-panel berrien bidez errazten delarik. Diru-sarrerak gastuak gainditu dituzte eta emaitza ekonomikoa oso positiboa izan da. Gainera, inbertsio garrantzitsuak egin dira baliabide estrategikoetan, erakundearen jasangarritasuna indartuz. Hornitzaileen kudeaketa ere sendotu da: ebaluazioak eguneratu dira; hala ere, hornitzaile esanguratsuen artean oraindik ez dugu garraio-zerbitzua txertatu.

Emandako zerbitzuen adostasuna: Orokorrean, emandako zerbitzuak adostasunez eman dira. Barne eta kanpo ikuskapenetan ez da ezadostasun esanguratsurik hauteman, eta erakundearen kudeaketa egokia izan dela baieztatu da. Ekonomia eta finantza jardueren ikuskapenetan ere ez da zuzenketarik behar izan, eta patronatuak 2025ko ekaineko bileran aurkeztutako txostena onartu du.

4.4.4. Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.

Azken ekitaldian mantendu da gure ahulezia nagusietako bat: gertatzen diren intzidente guztietatik oraindik ere ez dira behar adina jakinarazten. Horrek erakusten du arriskuen inguruko kontzientziazioa areagotzea beharrezkoa dela bai langileen, bai ikasleen artean. Horretarako, Kudeaketa Unitateetako arduradunak inplikatzeko estrategia indarrean mantendu da, nahiz eta emaitzak oraindik mugatuak izan.

Osasun eta segurtasun arloan (2024/09/01–2025/08/31 bitartean):

- **Langileak:**
 - Bazarik gabeko istripuak: 0
 - Baza ekarri duen istripua: 1 (in itinere).
 - Gaixotasun profesionalik ez da erregistratu.
 - Gaixotasun arruntek eragindako bajak: 27
 - Amatasun/Aitatasun bajak: 4
- **Ikasleak:** 13 istripu izan dira, guztiak medikuaren arreta eskatu dutenak.
- **FCT:** 5 istripu jaso dira.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	38

Barne-ikuskapenetan, 2025/03/25 (bek) eta 2025/3/21 (bak) ko azterketan ez da ezadostasunik agertu.

Kanpo-ikuskapenean, AENOR-ek ezadostasun bat ireki du legionelosisaren kontrolerako egiten diren neurketetan, Aerobioak ($\text{ufc/ml} \leq 100$) eta Burdinaren ($\text{mg/L} \leq 0,2$) parametroen hiruhileko kontrolak egiten direnaren ebidentzia ezagatik. Dagoeneko neurketa hauek egiten dituen enpresarekin, neurketa gehigarri hauek kontratatu dira.

Ekintza zuzentzaileak martxan daude hainbat arlotan:

- **Zarataren inguruan:** neurketa berriak egitea eta instalazioen akustika hobetzeko alternatibak aztertzea.
- **Intzidenteen komunikazioan:** formakuntza-saio espezifikoak antolatu dira eta prozedurak berrikusi dira, arriskuen aurrean erantzun azkarra bermatzeko.
- **Dokumentazioaren kudeaketan:** Business Central plataforman egindako egokitzapenak amaituta daude, aurreko urteko oharra itxitzat emanez.

Arlo ekonomikoan, ez da ezadostasunik erregistratu, ez barne-auditoretzan ezta kanpo-ikuskaritzetan ere. Hornitzaileen ebaluazioetan ere ez da arazo aipagarririk hauteman.

4.4.5. Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.

Adierazleen segimenduak erakusten du oro har emaitza positiboak izan direla. Helburuen gehiengo bete da eta zenbait arlotan, hala nola zarata mailen kontrola edo informatika zerbitzuaren antolaketa, hobekuntza beharra identifikatu da eta ekintza zuzentzaileak martxan jarri dira.

Prebentzio-zerbitzuen jarraibideen betetze-maila egokia izan da. Quironprevención-eko teknikari finkoa ez egon arren, prebentzio-ardurekin jarraitu da: administrazio langileen arriskuen ebaluazioa egin da, zarata neurketetan 1110 eta 1112 tailerretan legezko mugak gainditu dira eta horregatik ezadostasun bat ireki da, kontaminatzaile kimikoen neurketak egin dira (emaitza guztiak lege-mugen barruan), legionellari buruzko baldintza berriak ezarri dira eta autobabes-planaren eguneraketa burutzen ari da. Gainera, 82 azterketa mediko egin dira (3k uko egin diote) eta langile berriei prestakuntza eman zaie berdintasuna, deskonexio digitala eta laneko indarkeriaren inguruan.

Ingurumenaren kudeaketan ere aurrerapen nabarmenak egon dira: kanpo-zarata eta isurketen neurketak mugen barruan mantendu dira, 3. eraikinaren energia-ziurtagiria berritu da eta karbono-aztarna kalkulatu dago. Energia-eraginkortasunari dagokionez, eguzki panelen ezarpena gauzatu da eta domotika sistemak ezartzeko lehen urratsak egin dira, nahiz eta panelen onuraren kuantifikazioa oraindik eskuragarri ez egon.

Arlo ekonomikoari dagokionez, emaitzak oso onak izan dira. Diru-sarrerak 8.661.914 €-ra iritsi dira eta gastu orokorrak 7.624.121 € izan dira. Cash flow-a 1.699.913€-koa izan da, eta autonomia finantzarioa (0,83) zein zorpetze ratioa (0,15) helburu aurreikusien barruan mantendu dira. Inbertsioetan 351.689€ gauzatu dira, 200.000 €-ko erreferentzia gaindituz, eta horietatik 150.000 € Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzarekin finantzatu dira.

Beste adierazle operatibo batzuk ere nabarmendu behar dira: mantenu gastuak 255.781 €-koak izan dira (aurrekontua 215.000 € zen), eta horien artean mantenu orokorrak 143.608 € eta informatika mantenuko gastuak 112.174 € izan dituzte. Ur kontsumoa 557 m³ izan da (helburua 1.000 m³ zen), eta energia kontsumoa 399.666 tep (helburua 450.000 tep). Satisfazioari dagokionez, emaitzak onak izan dira: mantenu orokorra 4,42, garbitasuna 4,08,

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	39

kanpoko garbitasuna 3,99 eta informatika arloan hobekuntza nabarmena izan da (mantenu informatikoa 3,88 eta zerbitzu informatikoarekiko satisfazioa 3,7).

Zerbitzu osagarriei dagokienez, kafetegia Lidia Morenok kudeatzen jarraitzen du eta zerbitzua egokia izan da; garbitasun orokorreko lanetan, berriz, EULEN enpresarekin jarraitzen da eta zerbitzuaren kalitatea egokia dela baieztatu da.

4.4.6. Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.

Ekitaldi honetan, jasangarritasun kudeaketa prozesuaren baitan, lege-betekizunen jarraipena egin da eta betetze-maila egokia izan da.

- **Isurien eta zaraten kontrola:** kanpo-zarata eta isurketen neurketak egin dira, eta emaitzak lege ezarritako mugen barruan mantendu dira.
- **Legionella:** legedi berriak ezarritako baldintzei jarraituz, analisiak hiru hileko maiztasunez egin dira eta emaitzak egokiak izan dira.
- **Energia kontsumoen erregistroa:** energia-kontsumoen jarraipena egin da, eta datuak Administrazioak eskatutako aplikazioan erregistratu dira, petrolio tona baliokideetan adieraziz. Eguzki panelak martxan daude eta monitorizazio-sistema ezarri da, baita LED argiteria eta domotikako lehen urratsak ere.
- **Arriskuen prebentzioa:** prebentzio-zerbitzuak ezarritako ekintzak bete dira, besteak beste arrisku psikosozialen ebaluazioaren ondoriozko ekintzak eta biltegiko langileentzako prozedura berriak.
- **Informatzaileen Babeserako Legea (2/2023 Legea):** legeak ezarritako salaketa-kanala martxan dago, eta horren bidez arau-hauste penal edo administratiboak modu konfidentzian jakinarazi eta kudeatzeko mekanismoak bermatu dira
- **2024-2025 KEB (OCA):**
 - Igogailuak: ITC INTECA egun du, akatsik gabe
 - Behe-tentsioa
 - Transformadoreak: ICETEC egin du, akatsik gabe
 - 1-2-3 eraikinak: OCAGLOBAL egin du → condicionado con defectos graves (2)
 - 4 eraikina: OCAGLOBAL egin du → condicionado con defectos graves (2)

4.4.7. Ikuskapenen emaitzak.

Azken ekitaldian jasangarritasun prozesuari loturiko barne-ikuskapenaik ez da egin BAK prozesuarena **2025ko martxoak 21ean** egin zen, eta ez zen ezadostasunik jaso. Hala ere, ohar gisa jaso zen mekanikako tailerretan (1110 gelan eta metalezko egituretan) neurtutako zarata-maila altuak, 87 dB (A) gainditzen baitzituzten. Egoera horren aurrean, ekintza-plan bat ireki da eta bere kudeaketa martxan dago .

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	40

Bestalde, **2025ko martxoaren 25ean** arlo ekonomikoari lotutako barne-ikuskapena egin zen. Bertan ez zen ezadostasunik izan eta oharrik ere ez.

Kanpo ikuskapenei dagokienez, arlo ekonomikoan **“LKS Auditores”** enpresak egindako ikuskapena burutu da, eta ez da ezadostasunik jaso; aurkeztutako dokumentazioa eta prozedurak egokiak direla baieztatu da.

4.4.8. Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.

Azken ekitaldian hainbat mehatxu eta aukera identifikatu dira, eta horiei aurre egiteko ekintza zehatzak jarri dira martxan. Oro har, ekintzek eragin positiboa izan dute, nahiz eta zenbait kasutan emaitzak partzialak izan eta hurrengo ikasturteetan sakondu behar den.

Energia eta ingurumen arloa Energia-gastuaren igoera izan da arrisku nagusietako bat, batez ere negu hotzek eragindakoa. Honi aurre egiteko, 3. eraikinean eguzki panelen ezarpena gauzatu da eta dagoeneko martxan dago instalazioa, TAPIA Instalaciones enpresari esleitutako proiektuaren bidez. Dirulaguntzen justifikazioa aurkeztu da eta ordainketa jaso zain dago. Halaber, energia-kontsumoen monitorizazio sistema ezarri da eta karbono-aztarna neurtzeko lanekin jarraitzen da. Horrek erakundearen garapen iraunkorrarekin lerrokatutako ekintza praktikoak bultzatu ditu.

Domotika eta instalazioen kudeaketa 4. eraikineko klimaren kontrolarekin lotuta lehen urratsak eman dira domotika sistemaren ezarpenean, baina oraindik ez dago guztiz hedatuta eta hurrengo urteetan garatzen jarraituko da .

Digitalizazioa eta prozesuen eraldaketa Business Central eta Power BI aplikazioen bidez gastuen eta inbertsioen kontrola indartu da. Hasiera batean ODOO tresna aztertu bada ere, azkenik Grupo Castilla softwarea ezartzea erabaki da, eta idazketa unean muntaketa-prozesua martxan dago . Horrek aukera berriak emango ditu mantenua, segurtasuna eta pertsonen kudeaketa modu integratuan hobetzeko.

Zerbitzu informatikoaren satisfazioa Zerbitzu informatikoaren inguruko hobekuntza-neurriak jarri dira abian, eta oro har, satisfazioa hobetu bada ere, oraindik KU batzuetan maila baxua da (adibidez, Ingeniaritza KU). Hurrengo ikasturtean erabiltzaileen esperientzian sakontzeko ekintzak aurreikusten dira .

Arlo ekonomikoa

Arrisku nagusien artean administrazioarekiko menpekotasuna (kontzertuak), pertsonalaren kostuen pisua, HEAren joera beherakorra eta egituraren pisu finkoa nabarmentzen dira. Ekintza hauek eraginkorrak izan dira: HHko talde guztiak kontzertazio osoan sartzea eta ziklo berriak gehitzea; soldata-igoeren eragina gertutik jarraitzea; eta gastuen kontrol zorrotza mantentzea. Hala ere, HEAren beherakada eta egituraren pisu finkoa epe ertain eta luzerako mehatxu moduan mantentzen dira.

Aukerak

Bestalde, aukerak identifikatu eta baliatzen jarraitzen da, hala nola Goierri Valley bidez bezero-zorroa zabaltzea, MU-MGEP eta LORTEKekin harremanak sendotzea eta enpresentzat neurriak egindako formakuntza eta zerbitzu teknikoak eskaintzea . Ekintza hauek guztiek eragin positiboa izan dute, eta hurrengo urteetan mantentzea eta indartzea gomendatzen da.

4.4.9. Kanpoko hornitzaileen emaitzak.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	41

Mantenu eta instalazio zerbitzuak:

- **Elkor (transformadoreak):** zerbitzua oso ona izan da, ez da gorabehera nabarmenik izan.
- **Argilana (kalderak):** balorazioa ona izan da, eskatutako mantenu-lanak egoki burutu direlako.
- **Girolan (klimatizazioa):** zerbitzuaren kalitatea ona izan da, aurreikusitako mantenu-planaren betetze maila egokia izan da.
- **Orona (igogailuak):** zerbitzuaren eraginkortasuna ona izan da, ikuskapen teknikoak eta mantenu-planak behar bezala bete direlarik.
- **Ubaldo Lacalle (lorazaintza):** zerbitzua bikaina izan da, instalazioen inguruko mantentze-lanetan hobekuntza nabarmena ikusi da.
- **Canorlan (fotokopiak eta inprimaketa zerbitzuak):** oso ona, beharrei erantzun egokia eman delako.
- **Eulen (garbitasun orokorra):** zerbitzua egokia izan da eta aurreikusitako maila mantendu da.
- **Aratz Garbiketak (kanpo garbiketa):** zerbitzua oso ona izan da.

Arlo ekonomikoaren euskarri-hornitzaileak:

- **LKS:** kanpo-auditoriak egoki garatu dituzte, emaitza positiboekin.
- **Grupo Castilla Ingenieros, S.A.:** aplikazio informatiboen ezarpenean laguntza eman dute, emaitza egokiak lortuz.
- **IGN:** laguntza tekniko eta ekonomikoetan emaitza positiboak jaso dira.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	42

4.5. Hasierako Hezkuntza

Kudeaketa-sistemaren jarduera eta eraginkortasuna, ondorengoetan emandako eta eman daitezkeen aldaketak eta joerak barne:

4.5.1. Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.

Prozesu honen barruan, kexak lehenik irakasleei helarazten dizkiete ikasleek. Honek egoerari erantzuna ematerik badu, bere horretan amaitzen da. Horrela ez bada, tutoreak tratatu egiten du. Hau ez balitz nahikoa, GELA EKIPOA bilduko litzateke eta aztertuko zukeen gaia. Salbuespenak dira prozesuaren arduradunera helaraziko diren kexak. 2024/25 ikasturtean prozesuko arduradunarengana kexa bat iritsi zen formalki.

Familia baten kexa bat iritsi zen eskolara. Eskolan emandako erantzunarekin bat egiten ez zuenez, ikuskaritzara jo zuen. Bertatik iritsitako eskakizunak osatu ostean ikuskaritzak arrazoi eman dio familiari. Ondorioz, zer ez dugun behar bezala egiten esan digute eta ez ados bat zabaldu dugu bera behar bezala kudeatu eta zuzenketa egiteko

Bestalde, hiru hilean behin, ikasleei pedagogia arloko inkesta pasatzen zaie. Bertako emaitzak tutoreen bitartez irakasle bakoitzari helarazten zaizkio. Honek, bertan azaldu daitezkeen gorabehereri trataera ematen die. Ebaluaketa saioetan, inkestetan atera diren emaitza eta iradokizunak ikasleekin partekatu den galdetzen da. Orohar talde guztietan atzeraelikadura ematen da.

Urtean behin, berriz, satisfazio orokorra neurtzeko inkesta pasatzen dugu, ikasle zein gurasoei. Urtero inkesta horren analisia egiten da.

Ikasleen aldetik, lehen irakurketan, item ia denak eskolak ezarrita dituen helburuetara iristen dela ikus daiteke. Helburuetara iristen ez den item bakarra eskolako informatikarako dagoen satisfazio maila da. Hala era aurreko urteekin alderatuz hobekuntza egon dela ikus daiteke Aipatzeko da Batxilergoko etapan egon den igoera.

- 0.27 igoera media pedagogiako 8 itemetan
- 0.25 igoera media inkesta orokorreko 12 itemetan

Goi mailako zikloetan aldiz, nahiz eta helburuetara iritsi, pedagogiarekin zerikusia duten itemak 0.17 jaitsi dira iaztik. . Hau metodologia berriarekin lotuta egon daitekeela iruditzen zaigu. Asko eskatu eta eman gutxi ideiarekin. Gertutik jarraituko dugu item hauen eboluzioa.

Familien aldetik aldiz, satisfazio orokorra 4.35 izan da iazkoa baina 0,12 gehiago. Gainera aipatu behar orokorrean item guztiak azkeneko 5 urtetatik 2. hoberenak izan direla. Orokorrean iradokizun gutxi egon dira. Baten bat aipatzekotan, tutoreetatik jaso duten informazio urriaren inguruan izan da edota dugun exigentzia maila altuaren inguruan.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	43

4.5.2. Helburuen betetze-maila.

24/25 Ikasturtean helburu dezente bete dira, bereziki digitalizazioan, internazionalizazioan, ETHAZI ereduan eta berdintasunezko ekintzetan. Hala ere, zenbait hutsune nabarmendu dira: STEAM tailerrak bailarako ikastetxeetan berreskuratzea, Aprendizai eta zerbitzuak jardueren erregistro sistematizatua, mugikortasun aplikazioaren garapena eta ekonomia zirkularraren txertaketa osoa.

Jatorrizko Ikastetxe jarraipenaren, eta bertatik ikasleen informazio jasotzeko helburuarekin, Etxarriko Andramendi ikastolarekin bilerak egin dira, eta bertatik datozen ikasleen orientazio-lana planifikatu da. Altsasuko ikastetxearekin harremana ez da gauzatu, herrian gure eskolarekiko begirune gehiegi dagoen zurrumurruagatik, eta hori mozteko asmoz, eskolen arteko elkarlana zaildu du.

Komunitate alorrean aldiz, STEAM tailerrak bailarako ikastetxeetan ez dira berreskuratu, nahiz eta ikasleekin egindako erronka asteak esperientzia aberasgarria izan. Aprendizai eta zerbitzu erregistro sistematikoa ez da sortu, baina proiektu interesgarriak gauzatu dira: boleibol makina, Etiopia Utopiarentzako gari-jotzaile eta laino-uretatik ura biltzeko instalazioa, besteak beste. Hala ere, ekimen horiek jarraipen metodologiko sendagoa eskatzen dute.

Irakasleen prestakuntzan, helburuetako bat, irakasle guztiek EOP formakuntza egitea hiru urteren buruan; aurrean lau irakaslek egin dute. ELU formakuntza ez da gauzatu, irakasle berrien lan-kargagatik, baina DIGI formakuntza eskaini da eta zenbait irakaslek burutu dute.

Ikasleei hezkuntza integrala eman nahian hainbat ekintza egin dira. Alde batetik arrakastatsuak izan den SOI jardunaldiak (22 ekintza eta 1300 ikasle baino gehiago parte hartuta), boluntariotza hitzaldiak eskaini dira, bestetik, bi odol-emate saio antolatu dira. Aldiz, mugikortasunari buruzko APP proiektua eta behar-eskaintza inkestak ez dira gauzatu. Ikasketa arautik kanpo, Euskarazko klaseak, metal munduan behar diren hainbat makinaren erabilpenerako titulua lortzeko aukera, janari manipulaziorako karneta, elkartrukaketa e.a.

Irakaskuntza eta tutoretza alorrean Irakasleen digitalizazio formakuntza eskaini da (AA, SET eta Classwork tresnetan), eta dual jarraipen prozedura eguneratu da. Ikasleen banakako proiektuak eguneratu dira, nahiz eta aplikazio propioa garatzeko ahalegina ez den gauzatu. Bestalde enpresei zuzendutako informazio-triptikoak egin dira eta ikasleen interesak jasotzeko prozedura eguneratu da.

Internazionalizazio esparruan, Erasmus programa eskolako egutegira egokitu da, eta 11 ikaslek atzerrian esperientzia izan dute. Gainera, SEPIE bekak lortu dira eta ikasleen egutegia bateratu da, internazionalizazioari eusteko baldintza egokiak sortuz.

Curriculum berrikuntzan, digitalizazio, Jasangarritasun eta Enplegarritasun moduluak diseinatu dira. ETHAZI eredu hiru ziklotan berritu da: sentsibilizazio lanak egin dira, konpetentziak eta lorpen-adierazleak definitu dira eta ikaskuntza estrategiak

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	44

finkatu dira. Eskolak zeharkako gaitasunak egutegi berrira egokitu ditu eta intraneteen txertatu ditu.

Irakasleen prestakuntzan, helburuetako bat, irakasle guztiek EOP formakuntza egitea hiru urteren buruan; aurreen lau irakasle egin dute. ELU formakuntza ez da gauzatu, irakasle berrien lan-kargagatik, baina DIGI formakuntza eskaini da eta zenbait irakasle burutu dute.

Kudeaketa eta antolaketa esparruan eskolako kultura prebentiboa indartzeko, gailu digitalen erabilerari buruzko araudia sortu da. Ekonomia zirkularra barneratzeko urratsak egin dira, nahiz eta barne-ikuskapenetako check-lista eguneratu gabe dagoen.

Digitalizazioan, SET tresna ziklo batean txertatu da eta bestean bere erabilera ezagutzen hasi. Gehien zabaltzen ari den erraminta Teams eko Classwork modulua da. EVA-ren erabilera berrantolatu da, Batxilergoan soilik mantenduz.

Berdintasunaren arloan, azaroaren 25ean eta martxoaren 3an sentsibilizazio jardunaldiak burutu dira, eta ikasturte amaieran Gizonduz ikastaroa gauzatu da.

4.5.3. Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.

Prozesuaren helburu nagusia Hezkuntza integrala izan da, pertsonen oinarritutako hezkuntza emanaz. Ikasleen garapena ardatz duen tutoretza oinarri gisa hartuz, gaitasun sozialak garatu, sentsibilizazio eta partaidetza sustatu eta kurrikulumaz aparteko ikastaroak eskaintzea da hezkuntza integralaren gure interpretazioa.

Gaitasun sozialak lantzeko zeharkako konpetentzien inguruko lana izan da nagusi. Batetik Tknikaren eskutik Aktibitatearen Agindua dela eta, Ethazi ikuspegia gure hezkuntza proiektura doitzen goaz. Honetarako metodologia berri honetan sartzeko formazioa bultzatzea garrantzitsua da. Honen inguruan 2 esparru landu ditugu:

- Formakuntza: Ethazi lehen urratsak (ELU), Ethazi oinarritzko prestakuntza (EOP) eta Ethazi prestakuntza aurreratuan (EPA) eman zuten izena hainbat irakasleek. ELU formakuntza lehen aldiz eskaini da ikastetxean eta irakasle berri taldeari bideratuta dago. Azkenik akreditazio digitala lortzeko ikastaroak. A1, A2 eta B1 maila lortzeko ikastaroak egin dira
- ETHAZI ereduaren 25/26 ikasturtean hasteko, prestaketan aritu dira goi mailako 3 ziklo: FM3 / AR3 / MK3

Hezkuntza integralaren barruan sentsibilizazio eta partaidetza dugu beste ardatz bat. Bertan SOI ihardunaldia izaten dugu ardatz nagusia non 22 ekintza burutu dira eta 1300 ikasle hartu dute parte. Osasun eta solidaritatearen inguruko aktibitate nagusia odol emate ihardunaldia izan da.

Hezkuntza integralaren 3. eta azken ardatza, kurrikulumaz aparteko ikasketak eskaintzea dugu. Honetan, aurreikusten ziren karneten ikastaroak eman dira horga (33 ikasle iaz baino 62 gutxiago) , garabia (54 ikasle iaz baino 6 gutxiago) eta plataforma igogailua (19 ikasle iaz baino 6 gutxiago). Jaitxiera bat ikusten da. Tutoreen aldetik gai honen

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	45

garratzia behar bezala ikasleei transmititzea ezinbestekoa dela ikusten da. Bestalde HABE, First Certificate, Advance hizkuntza azterketak, Janari manipulazioko karnetak eta akademia bidez batxilerato bikoitza ateratzeko aukera ere eman da. Esan behar aurreko urteetan MT3 ko ikasleek izan zuten soldadura homologazioak ateratzeko aukera ez dutela izan.

Aurrekoari egokiago erantzun nahian, ondorengo azpitaldeak ditugu prozesu honetan. Azken 2 taldeak izan ezik besteak nahiko auto

- SOI taldea.
- Goierri Azoka taldea
- HNB taldea
- Balioak 4.0 taldea
- STEAM taldea

Bestalde Hasierako prozesuari lotuta diren beste aktibitateak ere badira. Nazioartekotzea, Duala, Berdintasun eta Batzordea

Nazioartekotzeari dagokionez aktibitate ezberdinak gauzatu dira. Alde batetik batxilergoko 36 ikasle, batzuk Italian (Giulianova) eta besteak Eslovenian (Liubliana) egon dira. Honetaz gain Lanbide heziketako 11 ikasle (Sepie-ko edo hetel-eko bekekin) atzerrian egon dira. Irakasle mugikortasunari dagokionean Finlandia (Tanpere), Dinamarka eta Katalunian egon dira eta Eskolan Belgikako ikasleak eduki ditugu eta eta Holandako (Yuverta) ko irakasleak. Azkenik Erasmus KA2 ko proiektu batean hartu dugu parte. DABS 4.0.

Erdi mailan eta batxilergoan erasmus zertifikazioa ez edukitzeak ikasleen ikasleen mugikortasuna duten proiektuetan parte hartze eragozten du. Zertifikazio haue ateratzeko lehen urratsak eman dira

Dualari dagokionez, lege aldaketaren ondorioz egindako berrikuntzak ezarri dire bere osotasunean. Lege aldaketak enpresan egonaldiak egiten dituzten ikasle kopurua asko igo du. Lehen, 2. mailan dena gainditu ostean soilik egin zezaketen praktika hauek eta orain aldiz, lehen eta bigarren mailako ikasle guztiek derrigorrez egin behar dituzte. Denera 557 ikasle joan dira praktikak egitera eta horretarako 220 enprekin eduki dugu harremana.

4.5.4. Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.

Ez adostasunen inguruan jatorri ezberdinak izan ditzakegu. Betekizunetatik, barne ikuskapenetatik, kanpoko ikuskapenetatik (Aenor edo Hezkuntza (ikuskaritza)), bezeroetatik e.a.

Betekizunetatik, 21 ez ados izan ditugu. 18 hiruhilabeteko ebaluaketa saioetatik eta 3 Ez Ohiko deialdia ondoren. Azken hiruak 3 talde ez baliozkotuak kontsideratzea dakar. Horietatik bi, gaindituen helburua betetzen ez dutelako dira eta hirugarrena errepika dezaketenetatik ia denek eskola uztea erabaki dutelako

Ikuskapenei dagokienez, barne ikuskapenean ez ados bat antzeman dugu. Batxilergoko ikasgai bateko UD ak eguneratu gabe zirelako. Kanpoko ikuskapena AENOREk egindakoa aldiz ez da ezadosik antzeman

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	46

Aurretik esan bezala hezkuntzako ikuskaritzaren bidez erreklamazio baten ondorioz (familiari eman diote arrazoi) ez ados bat ireki dugu. Batxlergoko ikasleei egiten zaien kalifikazioa ez dela LOMLOE arautzen duen moduan egiten

4.5.5. Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.

Hezkuntza arautuko adierazle nagusia urteko promozionatu (1. maila) eta titulua lortu (2. Maila) ehuneneko datua da.

Promozionatu edo titulu eskuratzearen adierazlea kontuan izanda, 39 taldeetatik 36 taldetan helburu hau bete da. Datu hau iazkoa baino zerbait okerragoa da

Bestalde finkatuta ditugun helburuak betetzen ez direnean ez da beti ez adostasuna ireki, baina beti egin da egoeraren hausnarketa eta kausen analisia. Betetze-mailatik gertu diren emaitzak, zergatik ez den iritsi aztertu eta arrisku berezirik ikusten ez bada dagokion aktan jaso behar dela aztertutakoa.

Emaitzekin loturiko beste adierazle bat USE sarbideko froga gainditzen duten ehunekoarena da.

Deialdia	Mailako ikasle kopurua	Aurkeztutakoak	USE gainditutakoak	Ez gaindituak
Ohikoa	87	67	64	3
Ez ohikoa		6	5	1
DENERA	87	73	69	4

Gure eskaintza integrala sustatzeko asmoarekin , ibilbide arautuaz gain beste tituluak lortzeko bideak lantzen dira:

- Hizkuntza aldetik:
 - HABE azterketara 35 ikasle aurkeztu dira
 - EUSKARA HLH 10 ikasle aritu dira
 - FIRST CERTIFICATE azterketara aurkeztu diren 14 ikasleetatik 9ek gainditu dute.
 - ADVANCE azterketara ez da inor aurkeztu
 - AKADEMIKA: 12 kide 6 lehen mailan 6 2, mailan. Hauek titulatu dute
- Makinen erabilerarako akreditazioak:
 - 178 ikaslek bere zikloari dagokion ofizioa atera dute.
 - 33 orga (Karretila).
 - 54 zubi garabia
 - 19 Plataforma igogailua.
- Batxilerato bikoitza AKADEMIKA -ren eskutik 6 ikaslek lortu dute.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	47

- Janarien manipulaziorako ziurtagiria SU1 eta PA2 ko ikasleek eskuratu dute

Emitza hauen lorpenean mehatxuak izan daitezkeen greba edo geldialdia bakarra izan da

- URRIAK 11 : PAU PROBAREN INFORMAZIO EZA
- MARTXOAK 13: ASKI DA. LH lege berria eta UNIBERTSITATEA

4.5.6. Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.

Ikasturte honetan agindu bat eta hainbat protokolo argitaratu dira.

- AGINDUA, 2024ko urtarrilaren 22koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira Haur Hezkuntzako ebaluazioa eta Oinarrizko Hezkuntzako eta Batxilergoko ebaluazioa, mailaz igarotzea eta titulazioa, hala badagokio.

Agindu honi dagokionean, ikusi eta aipatu dugu, konpetentizen bidezko kalifikazioa ez dugula behar bezala gauzatu

- Protokoloak
 - Ikaskuntza digitalaren gaitasunak egiaztatzeko prozedura agindu bat.
 - Trans ikasleen babes-protokoloa.
 - Jazarpen protokoloa
 - Jokabide suizida

Protokolo hauek behar bezala osatu eta argitaratu dira. Dokumentazio hau Goierri Eskolako intranetean txertatu da eta jakinarazi da ikastetxeko langile guztiari

4.5.7. Ikuskapenen emaitzak.

Goierrri Eskolako kudeaketa sisteman ezarrita dugun ikuskapenak gauzatu dira

Ikuskapenei dagokienez, barne ikuskapenean ez ados bat antzeman dugu. Batxilergoko ikasgai bateko UD ak eguneratu gabe zirelako.

Bestetik AENOREk 2025 ko Maiatzean egindako kanpo ikuskapena. Honetan ere ez zen ezadostasunik ezarri.

4.5.8. Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	48

Arrisku bat identifikatzen genuen iazko ikasturtearen amaieran. Enpresan egonaldiak egin behar duten ikasle kopurua esponentzialki igotzeak, Ikasleak DUALEAN behar ez diren aktibitateetan jartzea. Tutoreak bereziki behatu dute ikasleek enpresetan egin dituzten ekintza planak

Aldiz, aukera bezala, Teknikako elkarlana (erronkak, baloreak 4.0) jartzen zen. Batez ere formakuntza aldetik. Bertatik antolatu diren formakuntza saioetan parte hartu du Goierri eskolako irakasleak. Gehienak Ethazi metodologia aurrera eramateko formakuntza saioak

4.5.9. Kanpoko hornitzaileen emaitzak.

Kanpo hornitzaileak identifikatzeko banakako entitate edota familiak har ditzakegu kontutan. Oraingo honetan hornitzaile edo familia elementuak hartuko ditugu aztergai. Egia esan ez dugu hornitzaile horiek ebaluatzeko sistema antolaturik. Urtean izan ditzakegun intzidentzien aipamena egin dezakegu

- Hezkuntza- eta prestakuntza-zerbitzuak
 - Beste heziketa zentroak: jatorririzko ikastetxeak ditugu. Hauetako batzuekin (itunpeko ikastetxe batzuekin harreman sendoa dugu). Ikastetxe publikoekin harremana hotzagoa da.
 - Erakunde laguntzaileak: Hauetan, Tnika, iTlent, Hetel kolaboratzaileak izan daitezke. Beraiekin harreman jarrai dugu eta beraiekin formakuntza eta aholkularitza jasotzen dugu
 - Enpresetako tutoreak: Gure ikasleak Duala egiten dute bertan. Gaur egun ez dugu ezer sistematizaturik beraien formakuntza egiteko ezta beraiek balorazio egiteko.
 - Kanpoko irakasle edo adituak: Hezkuntza arautuan ez dugu horrelakorik
- Teknologia eta ekipamendu hornitzaileak

KU bakoitzak bere zikloarekin zerikusia duen teknologia lortzea arduratzen da eta beraien balorazio beraiek egiten dute. Aldiz prozesu honetatik eskola guztirako erabilgarri den teknologia bideratzen dira horiek artean ondorengoak aztertzen dira

Gure ihardueran laguntzen diguten Software artean inportanteenak (erabiltzaile kopuru ikuspegitik hartuta) honakoak dira:

- Educamos. Ez dugu arazo berizirik izan. Egia esan TEAMS arekin lanean hasi garenetik, EVA -ren erabilera (Educamosen txertatua den Moodle plataforma) murrizten joan da. EVA kendu da lanbide heziketako ziklo guzietan. Soilik Batxilergoan mantendu da baina hau ere etorikizunean kenduko da. Oso irakasle gutxi erabiltzen dute
- Citrix.

- Microsoft 365: Oso ondo erantzun duen zerbitzua. Berari esker hezkuntza aktibitatea mantentzeko aukera izan dugu.
- Eskolako Web gunea, Intraneta, Bikain, Reder e.a. Esan behar hauen zerbitzuaren eten larrik (eskolako jarduera erabat moztu) ez dugula izan. Aplikazio hauek zaharkiturik geratu dira eta beraren berritze prozesua abian da jada. Urtebete pasa dugu eta ez dugu aurrerapen handirik egin.
- WIFI konexioa. Ez dugu arazo berezirik izan
- Proiektoreak: Gela askotan

Aipatzeko da, urtero egiten dugun ikasle satisfazio inkestetan, Informatika baliabideei buruzko galderak balorazio baxua izaten duela. Aurtengorako egin ziren inbertsioak eta ondorengo hobekuntzak ez dira inkestako emaitzetan islatu.

4.6. Lanerako eta Etengabeko Hezkuntza

Kudeaketa-sistemaren jarduera eta eraginkortasuna, ondorengoetan emandako eta eman daitezkeen aldaketak eta joerak barne:

4.6.1. Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.

Satisfazioak oso goren jarraitzen du, iazko datuak hobetu ere egin dituelarik. Eskolak eta bertan diharduten pertsonak merkatu eta bezeroen beharretara egokitzeke egindako esfortzua azpimarragarria da.

	Espektatibak	Gaiaren interesa	Aplikagarritasuna	Baliabide didaktikoak	Dokumentazioa	Ariketak	Arreta	Irakaslea	Balorazio globala
19/20	8.83	8.91	8.75	9.13	8.95	8.92	8.97	9.47	9.08
20/21	9.69	9.37	9.33	9.77	9.74	9.29	9.64	9.60	9.69
21/22	8.89	8.93	8.57	8.93	8.96	8.96	9.17	9.37	9.03
22/23	8.76	8.85	8.51	8.83	8.91	8.88	8.75	9.33	9.01
23/24	8.92	8.96	8.67	8.96	9.01	8.98	8.88	9.44	9.00
24/25	8.98	8.96	8.66	9.14	9.07	9.14	9.00	9.56	9.15

4.6.2. Helburuen betetze-maila.

Lanbideren deialdien segimendua egin dugu. Hala ere, Lanbidek ez ditu deialdi nagusiak (langabetu, lanean ari direnak) publikatu. Irailean publikatu dute. Bi urte teorikoetarako publikatu badute ere, ekintzak 2027ko ekainerako bukatuta egon beharko dute, praktikak eta guzti. Hori batetik eta bestetik, Hezkuntzako C graduak eskatu eta lortuko dugunaren aurreikuspena dela eta, eskaera mugatua egitea ikusi dugu egokiena.

2024ean LEHko emaitza espero genuena baina baxuagoa izan da, nahiz eta urteko planean aurreikusitako ekintzak burutu diren. Beherakada lanean ari direnei zuzendutako ekintzetan nozitu dugu, bai neurrirako formazioan (aurreko urtean ez bezala), bai eta Lanbidek finantzatutako formazioan ere.

Onlineko formazioari dagokionean, arrakasta eza ikusirik, saiakera gehiago ez egitea erabaki zen, nahiz eta plataforma mantendu egingo dugun.

SESeko formazioari dagokionean, irakasle batek MT2 zertifikatua lortu du eta hainbat metodotan 3. Mailara iristeko oinarritzko formazioa egin du. Era berean, beste irakasle batek Phased Array zertifikatua lortu du. Eskaintzari dagokionean, REN/REC ikastaroak programatu eta eskaini dira. Phased Array programa garatzen jarraitzen dugu.

Etorkinen beharretara egokitutako formazioa honakoetan gauzatu da:

- Elkar Ekin lanean sarean parte hartzea: hemen helburu nagusiekin bat egin badugu ere, liderrak hartutako hainbat erabaki gure iritzien oso kontrakoak izan dira.
- Bestetik, oinarritzko gaitasunen ikastaroa eman dugu, baina giroa oso ona izan den arren, oso emaitza akademiko kaxkarrak lortu dituzte ikasleek orokorrean, bere jatorrizko maila apalagatik.

Formazio berritzailea eskaintzea izan zen beste helburu bat. Hiru ekintza txiki burutu dugu: Fabrikazio gehigarria, ChatGPT eta Finantzak ez finantzariantzat.

Prozesuaren digitalizazioari dagokionean HEZILANen ordezkapena amaitu dugu (LHK erabiltzen dugu orain).

Irakasleei haien asebetetze-mailagatik galdetu zaie berriro ere. Emaitzak oso onak izan dira. Hala ere, erantzun-maila apala izan da (4 erantzun izan dira).

Kontratazio prozesua	5,00/5
Lanposturako harrera	5,00/5
Bulego akademikoarekin erlazioa	5,00/5
Klasea emateko baliabideak	4,75/5
Klaseak emateko jasotako laguntza	5,00/5
Lan baldintzak	4,75/5
Goierri Eskolarekin izandako esperientzia, orokorrean	5,00/5

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	51

4.6.3. Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.

24/25 ikasturtean Lanerako Hezkuntzak ondoren azalduko ditugun ildoetatik joan da:

AKTIBITATEA ZENBAKITAN:

Denera, 2.643 ordu izan dira (iaz 3565,5). Haien banaketa honakoa izan da:

- Eskaintza: 460 ordu. (iaz 420)
- Lanean ari direnei zuzendutako formazioa: 110 ordu. (iaz 100). Oso egoera larria. Ozta-ozta lortu dugu eman ziguten %25era ailegatzea lerro guztietan.
- Langabeei zuzendutako formazioa: 1760 ordu. (Helburuak gaingitu dira, aurreikusita ez zegoen enplegu-nitxo berrien deialdian parte hartu baitugu); iaz 2.210 ordu izan ziren.
- Neurrira: 314 ordu. (Helburua 1500. Iaz 531,5 ordu). IRIZAR enpresarentzako formazioa berreskuratu bada ere, oso motza izan da. Orokorrean, neurrirako ikastaroen iraupena oso motza izaten ari da.
- Gure ikastaroetatik, denera 337 ikasle pasa dira (aurreko urtean 362), haien banaketa honakoa izan delarik:
 - Lanerako hezkuntzan: 102 ikasle. (iaz 84)
 - Katalogoko Etengabeko hezkuntzan: 37 + 82 ikasle (Lanbide lanean + eskaintza). Aurreko urtean 77 + 62 izan ziren.
 - Neurrira egindako etengabeko hezkuntzan: 116 ikasle (iaz 139).

SATISFAZIOA ZENBAKITAN:

Ikus aurreko puntua. Dena den, ikastaroekiko batezbesteko satisfazioa 9,16koa izan da eta irakaslearekiko satisfazioa 9,56. Oso emaitza gorenak.

ARRISKUAK, AUKERAK ETA HAIEN TRATAERA:

Langabetuei nagusiki zuzendutako formazioan, gure Erkidego Autonomoan, Lanbide da haiekin diharduen Administrazio nagusia. Lanbidek deialdietan erabilitako irizpideek orain artean gure aktibitateari eustea ekarri badiote, edozein momentutan gure aurka azaldu daitezke, amaieran puntuaren hamarreko gutxien bueltan ikastaroak esleitzetik ez esleitzera pasa zaitezkelako. Ikastaro guztiak ematea lortu dugu, gauzatze-maila handia izan delarik. Enplegurako nitxo berriak deialdiaren barnean 5 ikastaro eman zizkiguten eta haietako hiru eman ditugu 24/25 ikasturte honetan.

Arazoa, oraindik latzagoa da lanean ari direnei zuzendutako formazioan. Lanbideren irizpideetako bat aurreko urteetako aktibitate maila (absolutua) eta gauzatze-maila (ehunekotan) delarik, gure aktibitatea urtetik urtera murrizten ari dela ikusita, hurrengo deialdian ikastarorik gabe geratzeko arrisku bizia dugu.

Bestetik, Elkar Ekin Lanean proiektu barruan azkeneko urtetan aktibitatea izan badugu ere, 2024/2025ean ez dugu aktibitaterik izan. 2025/2026 ikasturtean sukaldaritzako ikastaro bat ematea aurreikusi bada ere, gure zeregina ikastaro

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	52

horretan espazioak uzteaz haratago ez da joango (ekintza administratiboak alde batera utzita), antolatzaileen erabakiaren ondorioz.

Lanean ari direnei zuzendutako formazioan, berriz, eskatutako 15 ikastaroetatik, gizarte- eta kultura-zerbitzuko familikoak (4) eta zeharkakoak (1) ukatu egin zizkiguten. Esleitutako 10 ikastaroetatik 6 besterik ezin izan ditugu martxan jarri eta hauek hasieran aurreikusitako ikasle baino kopuru txikiagoarekin, gehienetan; egoera larriagoa bihurtu du, oraindik, langabetuen kopurua deialdiak onartutakoaren gainetik egon dela eta horrek guztiak eraman gaitu Lanbidek %41eko gauzatze-maila aitortzera.

Irailean deialdi berriak publikatu dituzte eta urrian gure planak aurkeztuko ditugu, baina puntuaketetan jaitsiera bat nozituko bagenu, gure aktibitatea erabat murriztuta geratuko litzateke.

Honi aurre egiteko, C graduak emateko aukera eskatu genion Hezkuntzari, baina ikasturte honetako ebazpenean, aurretik taldeak zituztenei soilik eman dizkiete.

Gomendioa: Lanbideren deialdiak aztertu eta dagokionean gure planak aurkeztu. Hezkuntzak taldeak onartu eta kontzertatzeko deialdian C graduak eskatu.

Gomendioa: Lanean ari direnei zuzendutako formazioa publikizatzen ahalegin guztia egin. Lanean ari direnei zuzendutako ikastaroetan 12ko taldeak osatu.

Aurreko egoerari aurre egiteko beste iturri batzuk ere arakatu ditugu, Elkar Ekin Proiektua edota neurrirako formazioaren sendotzea. Lehen esan bezala, lehenengotik aktibitatea eskuratu dugu (nahiz eta gure iritziaren aurkako eskaintzan gauzatu) eta 2026/2027 ikasturtean ere beste ikastaro bat aurreikusi da. Neurrirako formazioan, berriz, eta lehen esan bezala, jaitsiera nabarmena izan dugu.

Gomendioa: Goierri Valleyren bitarteko aurkezpenei eta enpresetara zuzenean egindako bisitei eutsi hurrengo ikasturtean ere.

Txilerekin zenbait harreman mantendu egin dugu eta 2025eko abenduan elkartruke bat izateko aukera ireki da; hala ere, ez dugu egingo denaren baieztapenik.

Gomendioa: Txilerekin erlazio zuzena mantentzen saiatu beharko genuke.

Taldean homogenotasuna bermatzeko, gure eskaintzako ikastaroetan, orokorrean, jarraitu egiten dugu leihatilan “Nori zuzenduta” lantzen. Lanbideko ikastaroetan, berriz, banakako elkarriketak egiten ditugu parte hartu nahi duten guztiekin. Ikastaro motzetan baja gehiegirik eman ez bada ere, ikastaro ezadosak izan dira, kausa honi lotutakoak eta aitortu beharra dugu langabetuei zuzendutako formazioan taldea osatzearen beharrak hainbat kasutan ikastarorako erabat egokiak ez ziren hautagaiak hartzera eraman gaituela eta honek amaierako emaitzetan bere isla izan du (ikusi ikastaroetako ezadostasunak).

Gomendioa: Ikasleen hautaketan orientazioa lantzen jarraitu.

Geroz eta arruntagoa eta estrategikoagoa zaigu kanpoko teknikarien sare bat eratzea gure ikastaroetan irakasle aditu modura aritzeko. Hemen garrantzitsua da hauei behar bezalako harrera ematea eta jarraibideak argi ematea.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	53

2024/2025 ikasturtean abiarazi ditugun ikastaro guztietarako behar izan ditugun kanpoko irakasleak topatu ahal izan ditugu. Aurreko ikasturtean ez bezala, irakasle guztiek gurekin ikastaroen amaierara arte jarraitu dute.

Kanpoko irakasle guztiei beraien ebaluazioa jakinarazi zaie. Ez da ebaluazio negatiborik izan ikasleen aldetik inongo ikastaroan.

Bestetik, bosgarren aldiz kanpoko irakasleei beraien satisfazioagatik galdetu diegu, oso emaitza onak izan direlarik.

Gomendioa: Kanpoko irakasleen kudeaketarekin eta ordezkoen bilaketan jarraitu. Irakasleen hautaketan konpromisoa betetzeko oztoporik ez dela ezagutzen eta esplizitatu.

Irakasleen sarea sendotze aldera, bi irakaslek SES-etako beraien formazioa sakontzen jarraitu dute.

Online formazioarako eskaera monitorizatzen jarraitu dugu. Ez da kasik eskaerarik ailegatu eta ailegatu denetan ez da nahikoa izan talde bat eratzeko ere.

Baliabide digital berriak ez ditugu oraindik gure LEHko eskaintzan erabat txertatu. Ez dugu ekintza berezirik egin baliabide horien bidez ikastaroak emateko.

Gomendioa: Gela digitalak erabiliko dituzten ikastaroak identifikatu, diseinatu eta gauzatu.

4.6.4. Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.

2024/25 ikasturtean lau ikastaro izan ditugu emaitzek bultzatutako ezadostasunak irekitzera eraman gaituztenak:

- Langabetuei zuzendutako ikastaroak: FCOV27 Competencias clave nivel 2. Arazoa gainditutakoen ehunekoan egon da. Hala ere, ikasleen satisfazioa gorena izan da. Taldea eratu beharrak ez du bermatu ikasleek behar bezalako jatorrizko maila eta motibazioa eta honek ikastaroa gainditu ez dutenen kopurua areagotu egin du. Urtero azaleratzen den kasua da, konponbide eskasekoa. Era berean, oinarrizko gaitasun digitaleko ikastaroetan ere, Elkar Ekin lanean proiektuan beste ikastaro batzuk egiten ari ziren ikasleak izan genituen. Hauen motibazioa eta abiapuntua oso eskasak zirenez, gainditutakoen emaitzak kaxkarrak izan ziren eta kasu batean satisfazioan ere islatu zen.
- Lanean ari direnei zuzendutako ikastaroak: ikastaro ezados bat izan dugu (Kontratuak, nominak, kitatze-agiria eta gizarte segurantzak) eta bertan oso ikasle kopuru txikiarekin hasi eta hasi direnen egokitasun urria izan da (kasuren batean ikastaroaren maila nahikoa iruditu ez zaielako).

Haietarako ekintza zuzentzaileek ikasle potentzialekin hitz egitera jo dute, ahalik eta ikasle gehienek ikastaroak bukatu eta gainditu dezaten eta nahiz eta joko txikia egon, ikasleen hautaketan zorrozki jokatzeara. Hurrengo ikasturtean ematen diren emaitzen arabera izango da hauen eraginkortasuna.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	54

4.6.5. Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.

Prozesuaren kudeaketak eta haren memoriak adierazle bakoitzean izandako emaitzak jaso ditu. Haien artean, honakoak dira aipagarriak:

- Ikasleen satisfazio orokorra:
 - Oso maila gorenean jarraitu du beste urte batez, 9,16/10. Iaz 8,97/10. Balio honek azken urteetako altuenen artean jarraitu du. Langabetuen satisfazioa 8,81ra ere igo zen.
- Ikasleen satisfazioa irakaslearekiko:
 - Oso maila gorenean hau ere: 9,56; iaz 9,49.
- Ikastaroak gainditzeko duten ehunekoa:
 - Zertxobait igo da: %91,55 (iaz %90,40). Ikastaroak %94,62ak bukatu dituzte (iaz %92,05ak).
- HEAko orduak:
 - 2.643 ordu izan dira. Iaz 3.390,50 izan ziren eta emaitza helburuaren oso azpitik geratu da. Langabetuei zuzendutako formazioan aurreikusitakoaren gainetik aritu gara (nitxo berrien deialdia) baina lanean ari direnei zuzendutakoan joera negatiboa mantendu da eta iaz bezala, neurrirako formazioak behar bada nabarmena izan du.

Gomendioa: Adierazleen segimendua egiten jarraitu eta MDK prozesuaren bitartez ikastaro-eskaintzaren difusioarekin jarraitu eta, bereziki, neurrirako formazioan aktibitatea areagotzen saiatu.

4.6.6. Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.

LEH prozesuan, honakoak ditugu aipagarri:

- 2024-2025 deialdiak: Langabetuei eta landunei zuzendutakoak aurreko deialdien jarraipena izan dira, nagusiki. Hala ere, oso deigarria izan da lanean ari direnei zuzendutako deialdian euskararen, kalitatearen, ingurumenaren eta segurtasunaren kudeaketak desagertu izana meritu-irizpide bezala. Beste deialdi guztiak tentu handiz aztertu ditugu eta nitxo berrien eta digitalizazioko aginduetan gure proiektuak aurkeztu ditugu. Lehenengoan ikastaro gehienak onartu bazizkiguten ere, bigarrenetik kanpo geratu gara orain bi deialdi langabetuei zuzendutako deialdian oso aktibitate eskasa eman zigutelako. Arriskua: hemendik aurrerako deialdietan azken urteetako emaitzen eragina izango dugu.
- Lan-praktiketan ari direnei gizarte segurantzaren kotizatu beharra: 2/2023 Errege-Dekretu-legeak praktiketan ari direnengatik enpresek kotizatu beharra azaldu zuen. LEHri erdiz erdi eragin dio honek, gure ez arautuko ikasleen ehuneko esanguratsu batek haiengatik kotizatzeak aukerak betetzen ez duelako; horrela, ezin dituzte praktikak burutu eta, Eskolan bertan praktikak egiteko aukera bideratu dizkiegu, nahiko kopuru handian.
- Lanbide Heziketako 3/2022 legeak ezarritako Moduluen egitura. 2023/2024 ikasturtean lehenengo aldiz moduluak eskatzeko aukera izan zen. Guk ez genuen parte hartu. HETELeko ikastetxeei horrelako 21 ikastaro eman zizkieten eta HETELeko bileran

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	55

azaldutakoaren arabera, nola edo hala aurrekontua kontsumitu beharrean zeuden, Hezkuntza Saila, bestela Lan Sailera itzultzeko arriskua zegoen eta. Aldaketa honek suposatzen duena da Hezkuntza Sailak horrelako ikastaroak kontzertatu egiten dituela (finantzazioa ez dago emaitzen baitan) eta arautuaren izenemate eta matrikulazio prozesura egokitzen dira. 2024/2025 ikasturtean saiatu ginen horrelako ikastaroak eskuratzen, baina Lanbide Heziketako Sailburuordetzak, talde-kopurua areagotu ezin zuela eta, ez zigun ez guri ez gure egoeran zegoen inori graduako talderik eman.

Gomendioa: hurrengo ikasturterako talde-kopuruaren areagotzea aurreikusita dagoenez, eskaera berria egin.

4.6.7. Ikuskapenen emaitzak.

Prozesuaren barne ikuskapena martxoaren 28an burutu zen. Ez zen ezadostasunik izan. Era berean, kanpo ikuskapenean ere ez zen ezadostasunik izan. Ez dugu bestelako ikuskapenik jaso (Lanbide).

4.6.8. Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.

Honakoa izan da prozesuaren memoriak jasotakoa, mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasunari dagokionean:

Aurreko ekitaldiko ekintza	Eraginkortasuna	Ekintzaren ebaluazioa	Datorren ekitaldirako gomendioa
Ikasleen hautaketa gauzatu sarrerako baldintzak bete ditzaten	Baxua	Honako ikastaroak sorrarazi ditu ezadostasunak: - Oinarrizko gaitasunak. - Digitalizazioa langabetuentzat. - Kontabilitatea (6 ikaslek bukatu)	Mantendu
Online formakuntzarako prestaketa	Baxua	Plataforma erabat martxan dugu, baina ez dugu ikastarorik martxan izan.	Baztertu
Teknikarien sarea areagotu eta indartu	Ertaina	Ez da ikastarorik eman gabe geratu eta SES arloko bi formazio burutu dira (Jon Etxezarreta, Jabier Zunzunegi).	Mantendu
Irakasleek berdintasun- eta hizkuntza-irizpideak ez bermatu	Ertaina	Ez da ikastarorik eman gabe geratu, baina zenbait kasutan irakasleek ikastaroaren hizkuntza menderatu du (gaztelera) baina euskara ez.	Mantendu
Deialdien azterketa eta dagokionetan partehartzea	Ertaina	Deialdi guztiak aztertzen joan gara baina ez dugu hainbat kasutan egokia ikusi gure partehartzea.	Mantendu

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	56

Enpresen neurrirako formazioa bultzatu	Baxua	Ikasturte honetan ez da aparteko ekimenik burutu. Oso joera negatiboa dugu adierazlean. Irakasleek formazioa jaso dute, baina ez dugu ikastarorik martxan jarri.	Mantendu
Gela digitalen ustiaketa	Baxua		

4.6.9. Kanpoko hornitzaileen emaitzak.

2024/2025 ikasturtean kanpoko irakasleekin emandako ikastaroetan emaitzak adosekoak izan ziren kasu guztietan (aurreko puntuan aipatutako salbuespenekin). Egia esan, gurekin elkarlanean ari diren adituen lana oso ona izan da kasu guztietan eta bosgarrenez egin dugun inkestaren emaitza bikaina izan da aurten ere. Aurreko bi urteetan ez bezala, irakasleek ikastaroak bukatu arte gurekin jarraitu dute.

Gomendioa: Ikastaroetan irakasle moduan jardun diren adituen sare hori mantendu eta sendotu eta gurekin hastean hartzen duten konpromisoa azpimarratu.

4.7. Komunikazioa.

Kudeaketa-sistemaren jarduera eta eraginkortasuna, ondorengoetan emandako eta eman daitezkeen aldaketak eta joerak barne:

4.7.1. Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.

Komunikazio kanalen inguruko ikasle/guraso nahiz pertsonalaren satisfazio mailen helburuak bete dira. Eskolako pertsonalaren kasuan ere, emaitza positiboak izan dira. Gurasoen kasuan 8,27-ko balorazioa lortu da, iazko 8,17-koaren antzekoa. Ikasleei dagokionez, 7,51-ko balorazioa, iazko datuen antzera (7,56). Azkenik, eskolako pertsonalari dagokionez, 8,76-ko balorazioa, iazko datuarekin alderatuta (7,38), emaitza oso positiboa.

Aurreko emaitza horiek, emaitza orokorrak dira. Azpian ikus daitezke inkestetan arlo bakoitzean lortutako emaitzak.

Gurasoen inkesta-emaitzak:

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	57

	22/23	23/24	24/25
	106 erantzun	112 erantzun	113 erantzun
Eskola eta gurasoen arteko komunikazioa egokia da	4,18	4,08	4,14
Eskola eta zuen arteko komunikazio kanalak balora itzazu (bilerak, web orria, Educamos...).	4,22	4,13	4,17
Zure seme - alaben klaseko martxan eragina izan duen Eskolak burututako aldaketarik izan bada, hari buruz emandako informazioa balora ezazu.	4,24	3,96	4,01
Eskolaren web orrialdea www.goierrieskola.eus da. Balora ezazu web orri hau eskolaren berri jasotzeko bide modura.	4,25	4,17	4,22

Ikasleen inkesta-emaizak:

GALDERAK	22-23	23-24	24-25
03.- Eskolatik eskolaz kanpoko ekintzei buruzko (kirolak, ekintza kulturalak,...) informazioa	3,34	3,47	3,45
09.- Iradokizunei emandako trataera egokia da.	3,85	3,85	3,8
15.- Kurtsoan zehar klaseko martxan izandako aldaketek (ordutegiak, gelak, azterketa data	3,91	3,86	3,88
16.- Eskolak zuri informazioa emateko erabilitako kanalak (tutore eta irakasleen bitartez, v	3,91	3,94	3,89

Pertsonalaren inkesta-emaizak:

	22-23	23-24	24-25
M&K-PER-BAL: Informazioa bildu/partekatzeko ditugun baliabide/kanalak egokiak dira.	7,87	7,47	8,83
M&K-PER-BIL: Pertsonalaren bilera kopuru, informazioa eta aldaketak egoki komunikatu dira.	6,9	7,5	8,57
M&K-PER-ZK: ZK-ko informazioa jaso dut nire KU-an.	7,66	7,66	8,59
M&K-PER-KU: Nire arduradun eta KU-ko kideen arteko komunikazioa egokia da.	7,76	7,57	8,94

4.7.2. Helburuen betetze-maila.

Talde kopuruak eta ikasle kopuruak mantentzeko helburuaren baitan, Tik-tok sare soziala baliatu nahi zen egiten ditugun hainbat ekintzen erakus-leiho modura. Hausnarketa baten ondorioz, gure ikasleekin sare sozial hau ez baliatzea erabaki da. Beraz, ez da bete Tik-tok sarearen erabileran jarritako helburua. Helburu nagusia, ordea, bete da (ikasle nahiz talde kopuruak mantentzearena).

Bigarren helburu bat, online ikastaroak publizitzeko erabiltzen den webguneari loturikoa zen. Bertan, sarbide metrikak ezartzea zen helburu nagusia. Online ikastaroen emaitza kaxkarrak direla medio, ekimena baztertzea erabaki zen eta, horren ondorioz, ez da metrika horiek ezartzearen helburua bete.

SES edota FA alorreko katalogoak berritzeko helburua ere ez da gauzatu, ez bait dira berritu. Datorren ikasturtean gauzatu beharrekoak dira.

Langabetuei eta lanean ari direnei zuzendutako ikastaroak publizitzeko erabiltzen den plataforman doiketak gauzatu dira. Sortu beharreko dokumentazioak modu egokian lortze aldera.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	58

4.7.3. Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.

- 1- Marketin eta komunikazio kanala urtero egin ohi den moduan baliatu dira.
- 2- Publizitate kanpainak ohiko moduan kudeatu dira. Bada, ordea, gauzatu ez diren lanketak, hala nola katalogo berrien diseinua. Goierri Eskolako eskaintzari loturiko katalogo eta webguneko informazioa eguneratu beharrean gaude.
- 3- Pertsonen ongizatea bultzatu eta legedia bete asmoz, “canal de denuncias” delakoa ezarri zen. Kanal horren kudeaketan Dataprev etxearen laguntza dugu.
- 4- Erakundearen kudeaketan digitalizazioa bultzatu da. Horri loturiko barne-komunikazioa lantzen delarik, pertsonal guztiaren eskura ipiniaz bertako datuak. Horien artean aipa daitezke PowerBI-ko sistemak, webgune + intraneta, edota ikastaroen kudeaketarako plataforma. Hainbat informazio ere, eskolan ezarrita dauden bi pantailatan helarazten zaie bai ikasle bai pertsonalari ere.
- 5- Ikaslan Fundazioarekin bilera sistematikorik ez badago ere, sarri burutzen dira. Bertan, komunikazio kanal egokien inguruko hausnarketak, erakundearen elkar-ekintzen publizitatea eta, orohar, bezeroekin komunikazio kanalak eta edukiak lantzen dira.

4.7.4. Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.

Aurreko ikasturteetan bezala, 2024/25 ikasturtean ere ez da ezadostasunik ireki prozesu honi dagokionean.

4.7.5. Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.

Prozesuaren kudeaketak eta haren memoriak adierazle bakoitzean izandako emaitzak jaso ditu. Haien artean, honakoak dira aipagarrienak:

- Prozesuaren operatibari loturiko adierazleak:
 - %60-ko betetze-maila. Emaiza honen arrazoiak:
 - Tik-tok sare sozialaren erabilera aurreikusita bazegoen ere, azkenean baztertu egin da, ikasleekin erabiltzea desegokia dela erabaki ostean.
 - Online ikastaroen plataforman egin beharreko ekintzak baztertu dira, online ikastaroek izan duten harrera kaxkarra medio.
 - SES arloko zein bestelako zerbitzuen katalogoen berritzea ez da gauzatu.
 - Langabetuei bideratutako ekintza bereziak ere ez dira gauzatu.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	59

- Ikasle eta familien satisfazioa: Betekizunak bete dira. Ikasleen kasuan, emaitzarik baxuena eskolaz kanpoko ekintzen inguruko informazioan datza (6,9/10 nota izan delarik). Gainontzeko ataletan, 7,6tik gorakoa izan da emaitza. Familien aldetik, emaitza askoz hobea izan da, 8,27ko emaitzarekin.

- Komunikazio kanalen erabilerari loturik, honako emaitza hauek lortu dira:

	Instagram	Facebook	Linkedin	Youtube	Twitter	TikTok
Jarraitzaileak	1066	2081	1025	159	785	37
Aldaketa %a	%16	-	%13	%2	-%4	%54

4.7.6. Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.

Europako araudira eta Espainiako legedira egokitzeko pausuak ematen ari gara MEDIAGEST (DATAPREV) enpresaren eskutik. Haien laguntzarekin, bete beharreko legedia betetzen dugula ziurtatzen dugu.

Gurekin elkarlanean aritzen diren eta gure datuak eskuratzen dituzten entitateei, "encargado de tratamiento de datos" direnaren kontratu-sinadura biltzen eta eguneratzen jarraitzen dugu.

"Salaketen kanala" iazko ikasturtean ezarri ondoren, aurtan ere Dataprev enpresarekin kanal horren egokitasuna berretsi da.

4.7.7. Ikuskapenen emaitzak.

2025eko martxoaren 24-an burututako barne ikuskapenean zein AENOR-ek eginiko kanpo ikuskapenean, ez zen ezadostasunik izan.

4.7.8. Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.

Orokorrean, arriskuei aurre egiteko definitutako ekintzak gauzatu egin dira, gehienek beraien helburuak bete dituztelarik. Honakoak dira prozesuaren memorian jasotakoak:

Aurreko ekitaldiko ekintza	Eraginkortasuna	Ekintzaren ebaluazioa	Datorren ekitaldirako gomendioa
Datu pertsonalen babesarako Europako erregulamendura egokitu DBLO legedian izan daitezkeen aldaketak	Ertaina	DATAPREV enpresarekin elkarlanean dihardugu. Datorren ikasturterako mantendu beharrekoa da, aldaketak noiznahi gertatzen bait dira.	Mantendu

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	60

Paperezko euskarrien erabilera	Ertaina	Paperaren erabilera murriztu nahian jarraitzen dugun arren, oraindik ez da guztiz ezabatu. Ekintzak mantendu beharrean gaude.	Mantendu
Pertsonen balorazio negatiboa aldaketei buruzko informazioari buruz	Ertaina	Pertsonalaren asebetetzea hobetu den arren, ez da nahi adina hobetu. Ekintzekin jarraitu beharko da.	Mantendu

4.7.9. Kanpoko hornitzaileen emaitzak.

Kanpoko hornitzaileen artean kritikoenak honakoak ditugu:

- MEDIAGEST (DATAPREV): elkarlanerako prestutasuna egokitzen jotzen dugu.
- Aplikazio informatikoetarako, bertako (eskolako) informatikako zerbitzuak erantzun ona eman du.
- Publizitate arloarekin loturik, AZK enpresekin izan dugun elkarlana egokitzen jo da. Bestalde, aurreko lehen aldiz, ez dugu ADAKI enpresaren lankidetzarik izan. Urtea igaro ostean, erabaki zuzena izan dela deritzogu. Ez da inolako elkarlanik gauzatu beraiekin.

4.8. Berrikuntza.

Kudeaketa-sistemaren jardura eta eraginkortasuna, ondorengoetan emandako eta eman daitezkeen aldaketak eta joerak barne:

4.8.1. Bezeroaren satisfazioa eta atzeraelikadura, bai eta kanpoko parte interesdunen komunikazioak, kexak barne.

Pertsonen satisfazioko inkestak lortutako emaitzak, "Eskolak aukera eman dit berrikuntza proiektuetan eta ikasketetan parte hartzeko" galderari erantzunez, 24/25 ikasturtean **4,18** izan da. Aurreko urteetan emaitzak honakoak izan dira:

- 23/24 ikasturtean: 4,25
- 22/23 ikasturtean: 4,1
- 21/22 ikasturtean: 4,1
- 20/21 ikasturtean: 4,12
- 19/20 ikasturtean: 4
- 18/19 ikasturtean: 4,2
- 17/18 ikasturtean: 4,19
- 16/17 eta 15/16 ikasturteetan: 3,87
- 14/15 ikasturtean: 3,9

Emitza hauek erakusten dute irakasleen satisfazio maila prozesuarekiko nahiko egonkor mantentzen dela, azken urtean puntu txiki bat jaitsi bada ere (4,25 → 4,18).

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	61

4.8.2. Helburuen betetze-maila.

Aipagarriak dira ondorengo helburuetan izan dugun garapena:

Kanpo dirulaguntzak areagotu berrikuntzari dagokionean. 24/25 ikasturtean, dirulaguntzen bidez lortutako baliabideak nabarmen handitu dira, guztira **359.035 €**-koak izan direlarik. Aipatzekoak:

- **TKNIKA:** VRTRAIN proiektua, Nazaret zentroarekin elkarlanean: **25.040 €**.
- **Nodo fabrikazio aurreratua:** Juanjo Igarzabalek parte hartuta: **9.730 €**.
- **Ekipamendu deialdia (2. eremua):** Fabrikazio aditiboari lotutako ekipamendua (mixer eta labe extrusorea) erosteko: **150.000 €**.
- **MEFP:** 4 proiektu onartu dira datozen bi ikasturteetarako:
 - Robotika kolaboratiboaren ingurukoa: **50.000 €**
 - Taller Inteligente: **33.333 €**
 - Soldadura Cobotizada: **50.000 €**
 - Diseinu eta Fabrikazio Aditiboa (titaniozko protesiak): **35.932 €**
- **Ekintzailatza Gela:** dirulaguntza: **5.000 €**.

Bestalde, aurkeztutako hainbat proposamen ez dira onartu (adib. Desafío en Construcción Metálica 360: Del Diseño CAD al Producto Final con ULMA; ODOOrekin loturiko Kutxa Fundazioko eskaera; eta MU-rekin batera aurkeztutako ELKARTEK IM2MAG), baina etorkizunerako lan-ildo garrantzitsuak markatu dituzte.

Goierri Eskolaren IKT hausnarketa eta estrategia. IKTetan hausnarketa estrategikoak jarraipena izan du. Ekintza nagusiak:

- **Control operacional** aplikazioaren ordezkapenari dagokionez, ODOO ERP aztertzen eta ezartzen jarraitu da, baina momentuz ordezkapena ez da guztiz gauzatu.
- Goi mailako taldeetako ikasleek beraien PC propioak ekartzeko baldintzak sortu dira, azpiegiturak egokituz.
- **Business Central** erabat ezarri da, eta **Power BI** bidezko dashboard-en lanketarekin aurrera egin da.
- Nominen kudeaketarako software berria ezartzeko prozesua martxan jarri da.

Goierri Eskolaren teknologia plana eta garapena. 20/21ean definitutako plan teknologikoaren azken ikasturtea izan da 24/25a. Eguneraketa egin da, eta **digitalizazioa** zeharkako ardatz bezala gehitu da, ezagutza esparru guztietan eragina duena. Plan honen garapenerako behar diren funtsen estimazioa **1.472.519 €**-koa da.

4.8.3. Prozesuen jarduera eta emandako zerbitzuen adostasuna.

ENDaren garapena Teknologia planarekin erabat lerrokaturik, Goierri Eskolaren eskaintza sendotu eta zabaltzeko lanean jarraitu da. 24/25 ikasturtean lehen ikastaroak END laborategian eman dira, erabat ekipatuta eta zentralizatuta. Prestakuntzaren eskaintza indartu egin da, eta ikasturtean zehar kongresu eta azoka ezberdinetan parte hartu dugu; UNIREn Goierri Eskolak stand propioa ezarri du. Irakasleen prestakuntzari dagokionez, Javi Zunzunegik Phased Array formazioa eta Jon Etxezarretak ikuskapen bisualeko formazioa eta titulazioa lortu dituzte, eta Jon Otegik SESen kongresuan parte hartu du ponentzia eta publikazio baten bidez.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	62

Diseinu aurreratua Errealitate birtualaren erabilera sakondu da, Murgiltze-Gelaren bitartez. DF eta INGenieriako ikasleen proiektuak txertatu dira, eta HLH mailan ere hainbat prozedura digitalizatu dira errealitate birtualaren bidez (adib. olio aldaketa eta gasolio iragazkien ordezkapena). RV:XPANDR softwarearen inguruko formazioa jaso da, eta IKASLANekin elkarlanean prozeduren digitalizazioan lehen urratsak eman dira.


Fabrikazio Aurreratuaren Nodoa Goierri Eskola fabrikazio aurreratuko nodoan parte hartzen jarraitu du 24/25 ikasturtean. Nodo honen bidez, lanbide heziketaren etorkizuneko erronken inguruko hausnarketa eta fabrikazio aurreratuko proiektuen ezaugarriak lantzen jarraitu da.

Inbertsioak 24/25 ikasturtean, 200.000 eurotik gorako ahalmena kudeatu da, bi epealditan banaturik (urtarrila-ekaina eta ekaina-abendua). Inbertsio gehienak lehenengo sei hilabeteetan esleitu dira, ziklo berrien bigarren kurtsoak eta espezializazio berriek guneen egokitzapena eta baliabide berriak eskuratzea eskatu baitute. Azpimarratzeko moduko inbertsioak:

- **Fabrikazio aditiboa:** 4104 gelan laborategi berria osatu da (polimeroekin), eta 4102ra lekualdatzea aurreikusten da hurrengo ikasturtean.
- **Ekipamendu berriak:** mixer, labea eta 3D inprimagailua eskuratu dira 150.000 euroko inbertsioarekin.
- **IKT eta digitalizazioa:** Business Central, Power BI eta ODOO sistemetan urrats berriak eman dira.

Inbertsioen banaketa KUKa (2024)

- Batxilergoa: %0
- PAAF: %6
- Mintegi Elektrikoa: %12
- Eraikuntza Metalikoa: %34
- Ingeniaritza: %2
- Mekanika: %13
- OLH: %1
- Administrazioa eta Zerbitzuak: %1
- BAK: %23
- Informatika: %1
- Beste prozesuak: %6



Egoera ekonomikoak zalantzak sortzen baditu ere, inbertsio hauek erakusten dute estrategikoki lehenesten ari direla bai **ziklo berrien garapena**, bai **fabrikazio aurreratuko laborategiak**, bai eta **digitalizazioaren ezarpena** ere.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	63

4.8.4. Intzidenteen ikerketa; ezadostasunak eta ekintza zuzentzaileak.

Ez da ezadostasunik izan prozesu honi loturik.

4.8.5. Segimendu eta neurketaren emaitzak. Prebentzio-zerbitzuak emandako jarraibideen betetze-maila barne.

Prozesuaren kudeaketak eta haren memoriak adierazle bakoitzean izandako emaitzak jaso ditu. Haien artean, honakoak dira aipagarrienak:

- **"Kanpo-dirulaguntzak"** adierazleari dagokionez, helburua 100.000 € izanik, 24/25 ikasturtean **359.035 €** lortu dira. Emaitza hau oso altua da eta erakusten du kanpo baliabideak bilatzeko estrategiak emaitza bikainak ematen ari direla. Aurreko ikasturtean (23/24) 201.256,40 € eskuratu ziren, eta beraz joera gorakorra izan da azken bi ikasturteetan. RVCTI eta BDIH bezalako sareetan egoteak etorkizunean beste aukera batzuk irekitzen ditu.
- **"Pertsonen satisfazioa berrikuntza eta ikasketetan parte hartzeko aukerengatik"** adierazleari dagokionez, helburua 4 zen eta 24/25 ikasturtean **4,18** lortu da. Aurreko urtean 4,25 izan zen; balioa altu mantendu da, nahiz eta puntu hamarreneko jaitsiera txikia egon.
- **"Beste ikastetxeekin proiektu kopurua"**: helburua 5, emaitza **11**.
- **"Ideia kopurua"**: helburua 30, emaitza **45**.
- **"Kudeatutako proiektu kopurua"**: helburua 8, emaitza **8**.
- **"Kudeatutako proiektu proposamen kopurua"**: helburua 10, emaitza **11**.

Adierazle gehienetan helburuak bete edo gainditu dira, eta horrek erakusten du berrikuntza prozesua modu egokian garatzen ari dela.

4.8.6. Lege-betekizunen eta bestelako betekizunen betetze maila.

Prozesu honi bereziki loturiko lege-betekizunik ez dugu identifikatuta.

Bestetik, erakundearen garapena gauzatzeko eta berrikuntza proiektuak finantzatzeko, deialdi ezberdinetan parte hartzen jarraitzen dugu (Eusko Jauriaritza eta Teknika, MEFP, Kutxa Fundazioa, SPRI, Erasmus+, Hazitek...). Deialdi hauetan parte hartzeak arautegi espezifikoak betetzea eskatzen du, eta horiek bete dira behar bezala.

Azpirarratzekoa da azken urteetan aurkeztutako proiektuen artean hainbat **Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari (Next Generation EU) lotutako deialdietara** bidali direla, eta horrek eskakizun bereziak bete beharra ekarri du, besteak beste:

- **Hornitzaileak hautatzeko prozedurak** gardenagoak egitea.
- **Iruzuraren aurkako kontrol-neurriak** indartzea.
- **GJHekin loturiko eskakizunak** txertatzea proiektuen memorian eta justifikazioetan.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	64

Horiez gain, aurkeztutako proiektuen tramitazioan ez da **ezadostasunik** edo **lege-betetze arazorik** izan; guztiek dagokien arategia bete dute.

4.8.7. Ikuskapenen emaitzak.

Prozesuaren barne ikuskapena 2025ko martxoaren 24an burutu zen. Aurreko puntuan azaldutako moduan, ez zen ezadostasunik izan.

Kanpo ikuskapenean ere ez zen ezadostasunik ireki

4.8.8. Mehatxu eta aukerei aurre egiteko abiarazitako ekintzen eraginkortasuna.

Identifikatutako mehatxuetatik esanguratsuenak **kanpo baliabideen beharra** eta **proiektuetan lehiakortasun gero eta handiagoa** izaten jarraitzen dute. Horri aurre egiteko, urteko planean ezarritako ekintza batzuk garatu dira, eta emaitzak nabarmenak izan dira:

- **Kanpo baliabideak lortzea:** 24/25 ikasturtean guztira **359.035 €** lortu dira, 23/24 ikasturtean baino askoz gehiago (201.256,40 €). Honek erakusten du kanpo finantzazioa bilatzeko estrategiak eraginkorrak izan direla.
- **Harreman instituzionalak sendotzea:** Tknika eta HETELekiko lankidetzari eutsi zaio, eta HETELeko *Beteku* taldearen egituraketan parte hartzen jarraitu dugu.
- **Nodoetan eta sareetan parte hartzea:** Fabrikazio Aurreratuko Nodoan parte hartze aktiboa mantendu da, eta BDIH eta RVCTI sareetan jarraitzeak etorkizuneko proiektuetarako aukera berriak irekitzen jarraitzen du.
- **Estatu mailako elkarlana:** MEFPren deialdian aurkeztutako 4 proiektu onartu dizkigute, beste zentro batzuekin elkarlanean. Honek agerian uzten du elkarkidetasuna baliabideak eskuratzeko bide eraginkorra dela.
- **Europa mailako aukerak:** 24/25 ikasturtean aurkeztutako COVE eta ELKARTEK proiektuak ez dira onartu, baina prestakuntza eta esperientzia baliagarriak izan dira etorkizuneko deialdietarako. Era berean, Erasmus+ eta Hazitek bezalako programetan parte hartzeko aukerak identifikatu dira.

4.8.9. Kanpoko hornitzaileen emaitzak.

24/25 ikasturtean ez ditugu kanpo hornitzaileak identifikatzen.

5. Baliabideen egokitzapen-maila.

4. puntuan azaldutakoaren arabera, 2024ko gure emaitza ekonomikoak martxan jarritako neurrien eraginkortasuna agerian jarri du eta horrela aurreko urteetan pairatutako gastuen gorakadak (pertsonala, energia, lehengaiak) kudeaketaren bitartez eta kontzertuen igoeren bitartez neutralizatzea lortu da. Momentuz inbertsio-mailari eustea izan dugu (ikus Garapen Iraunkorra eta Berrikuntza prozesuei dagokien jarduera).

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	65

Giza-baliabideei dagokionean, 2024-2025 ikasturtean formazioari eskainitako baliabideei eustea izan dugu; era berean, Eusko Jaurlaritzatik eskatutako 6 ekintzetarako finantzazioa lortu genuen (aurreko ikasturtean, 23-24, 8 izan ziren) eta 2025-2026 ikasturterako beste 6 eskatu ditugu eta 5 eman dizkigute.

Pertsonen satisfazioari dagokionean, pertsonak beraien betebeharrak burutzeko duten denborarekiko satisfazioaren galderaren emaitzak balio baxuetan jarraitu du.

Baliabideekiko satisfazioak mantendu egin da; gorakada txiki bat erakutsi du bai arautuko, bai LEHko inkestetan; pertsonaleko inkestetan, zertxobait jaitsi da. Gela interaktiboaren hornitzailea aldatzeko aukera aztertu dugu 2024/2025 ikasturtean, Hezkuntza Sailak erabiliko duen hornitzaile bera izan dezagun; aurrekontua eskatuta dugu.

6. Partehartze eta Kontsultaren emaitzak

Segurtasun eta Ingurumen Batzordean ohikoa denez, arriskuen ebaluazioak, ikuskapenen emaitzak, Zuzendaritzaren berrikuspena eta abar azaldu eta kontsultatu dira. Biler horiei buruzko informazio guztia Batzordearen aktetan ikus daiteke. Ez da aldean arteko desadostasun nabarmenik azaldu.

7. Hobekuntzarako aukerak

- Kudeaketa Sistemaren mantentzea eta prozesu-mapara egokitzea.
- SOI jardunaldiak antolatzen jarraitu.
- Gizarte ekimeneko beste erakundeekin elkarlana mantendu eta sistematizatu.
- Arrisku psikosozialen ebaluaziotik eratorritako ekintzak garatzen jarraitu.
- Zuzendaritza eta K.U.en arteko bilerak.
- Liderren ebaluazioa burutu NeoBerriren bitartez.
- Gaitasunen ebaluazioa burutu Pertsonen Kudeaketarako aplikazio berriaren bitartez. Formazio-planen eta gaitasun-mapen arteko lerrokatzean sakondu. *Langilearen ataria* garatzen jarraitu.
- Jardueraren ebaluaketaren sistematizazioan jarraitu.
- LEH: gure eskaintza enpresa eta erakundeetan zabaldu.
- SES arloan irakasle espezialistak mantentzeko arlo horretako formazioarekin jarraitu.
- Ziklo berriaren eta espezializazio-ikastaroen monitorizazioarekin jarraitu (laneratzea, izenemate eta matrikulazioa).
- Intool erremintaren erabilera zabaldu.
- Baliabide digitalen ustiaketan sakondu: hezkuntza arautua, lanerako eta etengabeko hezkuntza.
- Lanbideko deialdiak aztertu eta, dagokionean, parte hartu.
- Goierri Valleyko mahai desberdinetan parte hartzen jarraitu.
- Goierri Valleyk bultzatutako formazioaren antolaketan parte hartu.
- Gasaren kontsumoa monitorizatzeko gailuak instalatu eta kontsumo horren monitorizazioa burutu intranetaren bidez.
- 2024/2025ean egindako azterketan ondorioz, 4. Eraikineko bero- eta hozte-sistemen konfigurazioa hobetu.
- Argiteria LEDera aldatzeko plangintzarekin jarraitu.
- Ekonomia zirkularrerako helburuak zehaztu eta haiek eskuratzeko plana definitu.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	<i>Orri zenbakia</i>
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	66

- Mantenimenduaren kudeaketarako erreminta berria definitu (ODOO, Business Central) eta ezarri.
- Document Captureren ustiaketa areagotu.
- Ezadostasunen eta inkesten kudeaketarako erreminta berriak aukeratu eta garatu/ezarri.
- Audiometrien eta zarataren neurketen emaitzen hausnarketatik ondorioztatutako hobekuntza-planaren gauzatzearekin jarraitu eta emaitzak ebaluatu.
- Intzidenteen komunikazioa areagotzeko ekintzekin jarraitu.
- Hasierako Hezkuntzako Etapa desberdinen ikasleen arteko elkarrekintzak gauzatu.
- Batxilergoan ikasketa-egoeren eta konpetentzia-bidezko ebaluazioan sakondu. USaP berrirako egokitzapenekin jarraitu.
- Nazioartekotzerako jasotako eta 2024/2025ean kontsumitu ez diren dirulaguntzak 2025/2026 ikasturtean helburu horrekin gauzatu.
- Baliabide Ekonomikoen Kudeaketa egokitu ikasturteen itxiera partzialak egin ahal izateko.
- Iruzurren aurkako plana edo protokoloaren ezarpenaren beharra zehaztu eta beharrezkoa balitz, haiek gauzatu.
- HETELen bitartez, itunen gaurkotze-prozesuaren egoeraren segimendua egin.
- Pertsonalak IKT akreditazioak eskuratzen jarraitu dezaten plangintza burutu.
- Pertsonen osasuna hobetzeko ekimen berriren bat (kirola, alkoholaren kontsumoaren murrizketa, kolesterola, pisua...) martxan jarri.
- Intranetean kultura prebentiboari buruzko berriak zabaltzeko ohitura errotu.
- *Elkartek* proiektu baten eskaera aurkeztu.
- Beteku taldean parte hartzen jarraitu.
- Garraio-enpresa hornitzaile esanguratsuen zerrendan sartu.
- Elkar Ekin Lanean parte hartzen jarraitu.
- Etorkinen eta enpresen beharrak uztartuko dituen plan bat aurrera ateratzeko bideak arakatu udal erakundeekin eta Administrazioako beste erakundeekin ere (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Lanbide).
- C moduluen eskaera egin, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak aukera emandakoan.
- Karbono-aztarnaren erregistroa sortzen duen 214/2025 Errege Dekretua geure borondatez bete nahi dugun erabaki.
- 712/2025, pneumatikoen bizitza baliagarriaren amaierari buruzko Errege Dekretuaren betetze-mailaren ebaluazioa burutu eta ezezkotan neurri zuzentzaileak gauzatu.
- 164/2025, martxoaren 4koa, Industria Establezimenduetako Suteen aurkako Segurtasun Erregelamendua – RSCIEI – onartzen duen Errege Dekretuaren betetze-mailaren ebaluazioa burutu eta ezezkotan neurri zuzentzaileak gauzatu.
- Enpresa, hornitzaile eta itunkideen satisfazioa neurtzeko inkesta definitu.
- Estrategien definiziorako jarraitutako prozedurarekiko satisfazioa Zuzendaritza Kontseiluari galdetu.
- Zuzendaritza mailan kudeaketari buruzko bilera monografikoak burutu, hiruhileko maiztasunarekin.
- SES-eko eta FAko katalogoak eguneratu.
- *Plataforma anitzeko aplikazioen garapena eta Mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Arreta* zikloetako kaptazioa indartu; gauza bera, Espezializazio-ikastaroei dagokionean: *Fabrikazio Aditiboko Espezializazioa (Administrazioak onartuko bazigun) eta Trenbideetako Materialen Mantentze-lan aurreratua.*

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	67

- *Batxilergo orokorrerako* ikasleen kaptazioa sendotu.
- *Mekatronika* zikloaren bikoizketaren bideragarritasuna aztertu eta ebaluaketaren arabera eskaera egin Administrazioari.
- Pertsonen bajak eta haien ordezkapenaren prozedura berrikusi.
- Informatika zerbitzuaren sendotzearekin jarraitu, satisfazioak izandako egoera kontsolidatzeko.
- Energiaren monitorizazioarekin jarraitu eta domotika sistemak gehitu.
- Eskola GJHen kudeaketa erreferente bilakatu.
- 0 istripurako helburuan lanean jarraitu.
- Kontrol operazionalerako azpiegitura informatikoa ezarri/garatu.
- Mugikortasun jasangarriko ekintza-plana gauzatu.
- Eragiketen kontrolerako aplikazioaren ordezkapeta.
- Power BI bidezko dashboard-en garapena.
- Ikaslanekin elkarlanean prozeduren digitalizazioan aurrera jarraitu (Berrikuntza: Diseinu aurreratua).
- Ikerkuntza eta berrikuntza sareetan gure partehartzeaz baliatu kanpoko dirulaguntzen kopurua maila altuan mantentzeko.
- Gela interaktiboaren hornitzaile aldaketaren azterketa

8. Berrikusketaren emaitzak, ondorengoei buruzko erabaki eta ekintza guztiak barne:

- 8.1. Sistemaren eta bere prozesuen egokitasun eta eraginkortasunari buruzko ondorioak eta erabakiak, ingurumeneko eta LSOk jarduerak eta kudeaketa-sistemaren integrazioa barne.

Gure sistema ISO 9001: 2015 eta ISO 14001:2015era egokitu genuen 2017/18an. 2021ean, berriz, OHSAS 18001etik ISO 45001erako egokitzapena burutu genuen.

2024/2025 ikasturtean hausnarketa estrategiko berria burutu dugu.

Era berean, Ikastetxeen Egitura Berrien definizioak prozesuen maparen egokitzapena ekarri digu eta honek sistemaren aldaketa ekarri digu. Bitan aldatu dugu dagoeneko prozesuen mapa, baina sistemaren dokumentazioa aldatzeko dugu oraindik.

8.2. Hobekuntza-aukeren buruzko erabakiak.

Ondorengoak dira hobekuntza-aukeretatik bideratuko direnak:

Hobekuntzarako aukera	Erabakia	Prozesua
Kudeaketa Sistemaren mantentzea eta prozesu-mapara egokitzea.	Bai	Estrategia eraldatzailea
SOI jardunaldiak antolatzen jarraitu.	Bai	EEZ / Garapen Iraunkorra
Gizarte ekimeneko beste erakundeekin elkarlana mantendu eta sistematizatu.	Bai	EEZ (HH)
Arrisku psikosozialen ebaluaziotik eratorritako ekintzak garatzen jarraitu.	Bai	Talentuaren kudeaketa
Zuzendaritza eta K.U.en arteko bilerak.	Bai	Talentuaren kudeaketa
Liderren ebaluazioa burutu NeoBerriren bitartez.	Bai	Talentuaren kudeaketa
Gaitasunen ebaluazioa burutu Pertsonen Kudeaketarako aplikazio berriaren bitartez.	Bai	Talentuaren kudeaketa
Formazio-planen eta gaitasun-mapen arteko lerrokatzean sakondu. <i>Langilearen ataria</i> garatzen jarraitu.		
Jardueraren ebaluaketaren sistematizazioan jarraitu.	Bai	Talentuaren kudeaketa
LEH: gure eskaintza enpresa eta erakundeetan zabaldu.	Bai	Marketing eta Komunikazioa
SES arloan irakasle espezialistak mantentzeko arlo horretako formazioarekin jarraitu.	Bai	Talentuaren kudeaketa
Intool erremintaren erabilera zabaldu.	Bai	Estrategia eraldatzailea
Baliabide digitalen ustiaketa sakondu: hezkuntza arautua, lanerako eta etengabeko hezkuntza.	Bai	EEZ (HH)
Lanbideko deialdiak aztertu eta, dagokionean, parte hartu.	Bai	EEZ (LEH)
Goierri Valleyko mahai desberdinetan parte hartzen jarraitu.	Bai	Estrategia eraldatzailea
Goierri Valleyk bultzatutako formazioaren antolaketan parte hartu.	Bai (baliabideen arabera, lantzen joan)	EEZ (LEH)
Gasaren kontsumoa monitorizatzeko gailuak instalatu eta kontsumo horren monitorizazioa burutu intranetaren bidez.	Bai	Garapen Iraunkorra
2024/2025ean egindako azterketan ondorioz, 4. Eraikineko bero- eta hozte-sistemen konfigurazioa hobetu.	Bai	Garapen Iraunkorra

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	69

Argiteria LEDera aldatzeko plangintzarekin jarraitu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Ekonomia zirkularrerako helburuak zehaztu eta haiek eskuratzeko plana definitu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Mantenimenduaren kudeaketarako erreminta berria definitu (ODOO, Business Central) eta ezarri.	Bai	Garapen Iraunkorra
Document Captureren ustiaketa areagotu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Ezadostasunen eta inkesten kudeaketarako erreminta berriak aukeratu eta garatu/ezarri.	Bai	Estrategia eraldatzailea
Audiometrien eta zarataren neurketen emaitzen hausnarketatik ondorioztatutako hobekuntza-planaren gauzatzearekin jarraitu eta emaitzak ebaluatu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Intzidenteen komunikazioa areagotzeko ekintzekin jarraitu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Hasierako Hezkuntzako Etapa desberdinen ikasleen arteko elkarrekintzak gauzatu.	Bai	EEZ (HH)
Batxilergoan ikasketa-egoeren eta konpetentzia-bidezko ebaluazioan sakondu. USaP berrirako egokitzapenekin jarraitu.	Bai	EEZ (HH)
Nazioartekotzerako jasotako eta 2024/2025ean kontsumitu ez diren dirulaguntzak 2025/2026 ikasturtean helburu horrekin gauzatu.	Bai	EEZ (HH)
Iruzurren aurkako plana edo protokoloaren ezarpenaren beharra zehaztu eta beharrezkoa balitz, haiek gauzatu.	Bai	Estrategia eraldatzailea
HETELen bitartez, itunen gaurkotze-prozesuaren egoeraren segimendua egin.	Bai	Garapen Iraunkorra
Pertsonalak IKT akreditazioak eskuratzen jarraitu dezaten plangintza burutu.	Bai	Talentuaren kudeaketa
Pertsonen osasuna hobetzeko ekimen berriren bat (kirola, alkoholaren kontsumoaren murrizketa, kolesterola, pisua...) martxan jarri.	Bai	Talentuaren kudeaketa
Intraneteen kultura prebentiboari buruzko berriak zabaltzeko ohitura errotu.	Bai	Talentuaren kudeaketa
Elkartek proiektu baten eskaera aurkeztu.	Bai	Berrikuntza
Beteku taldean parte hartzen jarraitu.	Bai	Berrikuntza
Garraio-enpresa hornitzaile esanguratsuen zerrendan sartu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Elkar Ekin Lanean parte hartzen jarraitu.	Bai	Estrategia eraldatzailea
Etorkinen eta enpresen beharrak uztartuko dituen plan bat aurrera ateratzeko bideak arakatu udal erakundeekin eta Administrazioako beste erakundeekin ere (Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Lanbide).	Bai	Estrategia eraldatzailea

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	70

C moduluen eskaera egin, Lanbide Heziketako Sailburuordetzak aukera emandakoan.	Bai	Marketing eta Komunikazioa
Karbono-aztarnaren erregistroa sortzen duen 214/2025 Errege Dekretua geure borondatez bete nahi dugun erabaki.	Bai	Garapen Iraunkorra
712/2025, pneumatikoen bizitza baliagarriaren amaierari buruzko Errege Dekretuaren betetze-mailaren ebaluazioa burutu eta ezezekoan neurri zuzentzaileak gauzatu.	Bai	Garapen Iraunkorra
164/2025, martxoaren 4koa, Industria Establezimenduetako Suteen aurkako Segurtasun Erregelamendua – RSCIEI – onartzen duen Errege Dekretuaren betetze-mailaren ebaluazioa burutu eta ezezekoan neurri zuzentzaileak gauzatu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Enpresa, hornitzaile eta itunkideen satisfazioa neurtzeko inkesta definitu.	Bai	Estrategia eraldatzailea
Estrategien definiziorako jarraitutako prozedurarekiko satisfazioa Zuzendaritza Kontseiluari galdetu.	Bai	Estrategia eraldatzailea
Zuzendaritza mailan kudeaketari buruzko bilera monografikoak burutu, hiruhileko maiztasunarekin.	Bai	Estrategia eraldatzailea
SES-eko eta FAKo katalogoak eguneratu.	Bai	Marketing eta Komunikazioa
<i>Plataforma anitzeko aplikazioen garapena eta Mendekotasun egoeran dauden Pertsonen Arreta</i> zikloetako kaptazioa indartu; gauza bera, Espezializazio-ikastaroei dagokionean: <i>Fabrikazio Aditiboko Espezializazioa (Administrazioak onartuko bazigun) eta Trenbideetako Materialen Mantentze-lan aurreratua.</i>	Bai	Marketing eta Komunikazioa
<i>Batxilergo orokorrerako</i> ikasleen kaptazioa sendotu.	Bai	Marketing eta Komunikazioa
<i>Mekatronika</i> zikloaren bikoizketaren bideragarritasuna aztertu eta ebaluaketaren araberrako eskaera egin Administrazioari.	Bai	Marketing eta Komunikazioa
Energiaren monitorizazioarekin jarraitu eta domotika sistemak gehitu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Eskola GJHen kudeaketan erreferente bilakatu.	Bai	Garapen Iraunkorra
0 istripurako helburuan lanean jarraitu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Kontrol operazionalerako azpiegitura informatikoa ezarri/garatu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Mugikortasun jasangarrirako ekintza-plana gauzatu.	Bai	Garapen Iraunkorra
Eragiketen kontrolerako aplikazioaren ordezkaketa.	Bai	Garapen Iraunkorra

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	71

Power BI bidezko dashboard-en garapena.	Bai	Garapen Iraunkorra
Ikerkuntza eta berrikuntza sareetan gure partehartzeaz baliatu kanpoko dirulaguntzen kopurua maila altuan mantentzeko.	Bai	Berrikuntza
Gela interaktiboaren hornitzaile aldaketaren azterketa	Bai	Berrikuntza

Eta hauek baztertu direnak:

Hobekuntza	Erabakia	Prozesua
Ziklo berriaren eta espezializazio-ikastaroen monitorizazioarekin jarraitu (laneratzea, izenemate eta matrikulazioa).	Ez	
Baliabide Ekonomikoen Kudeaketa egokitu ikasturteen itxiera partzialak egin ahal izateko.	Ez	
Pertsonen bajak eta haienzako ordezkaketen prozedura berrikusi.	Ez	
Informatika zerbitzuaren sendotzearekin jarraitu, satisfazioak izandako egoera konsolidatzeko.	Ez	
Ikaslanekin elkarlanean prozeduren digitalizazioan aurrera jarraitu (Berrikuntza: Diseinu aurreratua).	Ez	

* Hauek dira indarrean ditugun prozesuak:

Laburdura	Prozesua
EE	Estrategia Eraldatzailea
BER	Berrikuntza
MK	Merkatua eta Komunikazioa
TK	Talentuaren kudeaketa
GI	Garapen iraunkorra (Baliabide Ekonomikoen kudeaketa)
EEZ	Ezagutza Eraldatzailea eta Zerbitzuak (Hasierako Hezkuntza) (Lanerako eta Etengabeko Hezkuntza)

8.3. Ingurumenaren kudeaketa-sistema beste atalekin integratzeko aukerak.

Gure sistema integratua dela badiogu Kalitatea, Ingurumena eta Segurtasunaren Kudeaketak kontuan hartu dituelako da. Hala ere, prozesu berrien diseinuari, inbertsio-planen diseinuari edota formazio-planen diseinuari ekiten diegunean, Ingurumen eta Segurtasunaren klabeak kontuan hartzeko kultura sakontzen jarraitu behar dugu.

Antolaketa Egitura Berrien proiektuaren gauzatzean erabateko kontuan hartu behar ditugu Ingurumenaren eta Segurtasunaren Kudeaketa.

	KUDEAKETA SISTEMAREN BERRIKUSKETA BATERATUA	Orri zenbakia
	PROZESUA: KOKAPEN ESTRATEGIKOA	72

8.4. Helburuen lorpen ezaren aurrean martxan jarri beharreko ekintzak.

Dagoeneko, prozesu bakoitzak bere memorian eskuratu dituen eta lortu ez dituen helburuak zerrendatu ditu, kausen analisia egin eta hurrengo ekitaldirako erabakiak hartu.

Sistema-mailari dagokionean, Prozesuetako Arduradun bakoitzak geurea egin dugu helburu eta ekintzen segimenduak duen garrantzia, helburuen lorpen-maila areagotzean.

7. eta hartatik eratorritako 8.2 puntuak, besteak beste beraien helburua lortu ez dituzten gaiak kontuan hartu dituzte eta hobekuntzak proposatu.

8.5. Bezeroen betekizunei loturiko zerbitzuaren hobekuntza.

Erroka/Prozesu/ETHAZI bidezko metodologietan sakontzen jarraituko dugu hezkuntza arautuan. Tknikarekin batera arituko gara elkarlanean.

Berrikuntza proiektuak garatzen jarraituko dugu. Era berean, seinaleen kaptazioarekin jarraituko dugu eta horrela aukera berriak jaso.

Antolaketa egindako aldaketek Hasierako Hezkuntzako bezeroen (ikasle, familia, enpresen) satisfazioan eragin positiboa izan dutela ikusi da.

LEHari dagokionean, ez da arrisku larri ikusi ikastaroen satisfazioan. Hala ere, aktibitatearen joera beherakorrak aurrera darrai.

8.6. Baliabideen beharrak.

Goierriko Herrien Ekintzak ezarritako helburuak eskuratzeko eta bere kudeaketa-sistemaren mantentze, hobetze eta haren zertifikaziorako beharrezkoak liratekeen baliabideak jarriko ditu. Era berean, proiektuak gara daitezen diru-partida bereziak egokitu dira (200.000€tako inbertsioak); hauek, helburuen eskuratzeko laguntzeaz gain, ikasleen kurrikulumean txertatuko diren teknologia berriak garatzeko elkarlanean egindako proiektuetara (Tknika) eta Berrikuntza Taldeak lehenetsitako beste batzuetara bideraturik daude, bai eta zaharberritze lanetara ere.

Era berean, Berrikuntza guneko urbanizazioari aurre egiteko eskatutako baliabideak eskura jarri ditugu eta segimendua burutu.

8.7. Kudeaketa-Politikan, helburu, jomugetan eta sistemaren beste elementuetan txertatu beharreko aldaketak, etengabeko hobekuntzarako dugun konpromisoarekin lerroatutakoak.

Sistemaren berrikusketa hau Hausnarketa Estrategikotik eratorritako helburuekin alderatu da eta helburu guztiak bertan zeudela egiaztatu da.

2024/2025 ikasturtean burututako hausnarketa estrategikoak helburuetan, jomugetan eta sistemaren beste elementuetan aldaketak ekarri ditu eta horrela jaso dira planetan eta prozesuetan.

2023/2024ean Garapen Jasangarrirako Helburuak eskuratzeko gure konpromisoa esplizitatu genuen Kudeaketa-politikan.